# ttipi-ttapa

263. zenbakia • 1999ko urriak 7 • XIX. urtea

# Bi aste euskaldunen Ameriketan

North American Basque Organitation (NABO) erakundeak gonbidatuta joan ziren Estatu Batuetako Renoko Aste Nagusira Euskal Herriko musika talde eta bertsolari batzuk. Horien artean zegoen Estitxu Arozena bertsolari lesakarra. *«Egitaraua da guttienekoa, Euskal Astearen helburua han bizi diren euskaldunak elkartzea baita»* dio Estitxuk. Bi aste eman zituen eta Ameriketan laketutako euskaldunen bizimodua ezagutzeko modua izan zuen. Ale honetako erreportaian, han izandako bizipenen eta ezagututako jendearen iritzien berri ematen du. Euskalduntasuna era bitxian eta gatazkarik gabe bizi dutela dio. Horren erakusgarri, Mugairiko Esteban Goñiren hitzak: *«Nik bertsoak, aizkora eta pilota, ez dut bertze deus nahi!».*

*Euskalduntasuna era bitxian eta gatazkarik gabe bizi dute Ameriketan. «Nik bertsoak, aizkora eta pilota, ez dut bertze deus nahi» dira Esteban Goñi mugairiarraren hitzak.*

☞ 4-5



**3** Elkarrizketa:
## Jose Luis Anso
Ezpelarekin sukalde tresnak egiteaz bizi da Oizko Jose Luis Anso. *«Zenbat eta gehiago erabili, finagoa gelditzen da ezpela».*

**6** Gaurkotasuneko Gaia
## Udalbiltza
Lesaka, Urdazubi eta Leitzako alkateen iritzia, erakunde berriari buruz.




Estitxu Arozena

LEIHO ETA ATEAK

# LEIHATE

GAZTAÑAGA HERMANOS, S.L.

**IRUN**
PINAR, 2 behea
Tfnoa.: 943 61 41 56

**DONOSTIA**
MAESTRO SANTIESTEBAN kalea
Tfnoa.: 943 46 96 22

- ✓ **BARNETIK BERRITZEA:**
  - Barneko ateak
  - Ate blindatuak
  - Zolak: Tarimak eta tarima flotanteak
- ✓ **PVC eta aluminiozko leihoak**
- ✓ **Armairu enpotratuak**





IRUGLAS, S.L.
GRABADOS

**MARMOLAK ETA GRANITOAK**




- *Hileta artea*
- *Era guzietako letrak eta marrazkiak grabatzen dira*
- *Sukalde eta bainurako entzimerak*
- *Ispiluak, kristalak eta zeramika grabatuak*



Fraineko bidea • 948 637 412 • IGANTZI

DATUAK.........

❖ *Ezpel egurrarekin sukalderako tresnak egitea da Jose Luis Anso oiztarraren lanbidea.*

❖ *Gabino aitak laguntzen dio tailerrean. Gabinok aita eta aitxatxiaren eskutik ikasi zuen ofizioa, hori bai, beti ezpelarekin. «Guri beti kutxareroak bezala ezagutu gaituzte» dio Jose Luisek.*

❖ *Gabinok lau urte zituenean etorri ziren gurasoak Erronkaritik Oitzera: «Ezpela bakandu zen han eta hau berriz, ezpel tokia da. Ezpelaren bgibeletik etorri ginela esaten ahal da».*

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITOR AROZENA

☞ **Jose Luis ANSO ZELAIETA** *Ezpela lantzen duen eskulangilea*

# "Zenbat eta gehiago erabili orduan eta finagoa gelditzen da ezpela"



Hogeita hamabi sukalde tresna ezberdin egiten dira Ansotarren tailerrean

**EZPELA NONDIK HARTZEN DUZUE? GARAI JAKIN BATEAN MOZTEA KOMENI DA?**

Oizko mendietatik mozten dugu eta zenbait ezpel zuhaitzek ehun urte edo izanen dituzte. Mozterako orduan, berriz, ez diogu ilargiari edo horrelakoei begiratzen... behar dugunean mendira joan, moztu eta tailerrera ekarri. Hori bai, zaila izaten da, bizkarrean atera behar izaten baitugu.

**EZPELA BAKAR-BAKARRIK LANTZEN DUZUE. ZERGATIK?**

Ezpelak kategoria gehiago du. Kontuan hartu behar da ezpela mantso-mantso hazten dela eta horrexegatik ona izaten da sukaldeko tresnak egiteko: zenbat eta gehiago erabili, orduan eta finagoa gelditzen da. Pinua eta pagoa, berriz, beltzatu egiten dira.

**EZPEL PUSKATIK TRESNA BAT ATERATZEKO, ZEIN DA PROZESUA?**

Ezpelaren neurriaren arabera, tresna gehiago edo guttiago ateratzen ahal dira puska batetik. Tresnari eman nahi zaion tamainaren arabera moztu eta itxura ezberdineko tresnak egiten ditugu, lanbide honetarako espreski egindako makinariari esker. Zakar haundixkoenak kentzeko fresatu eta lixatu egiten dira gero. Prozesu guzia egindakoan, eguraldi ederra eta haizegoa denean egun batez kanpoan uzten dira tresnak idortzen eta bertzela labean sikatzen dira. Labea pizteko akatsa dutenetaso-beran dauden ezpel puskak erabiltzen ditugu. Hemendena probexten da. Gero, pulitu eta argizari pixko bat ematen zaie, kolorea hartzeko haina bakarrik, eta listo! Saltzeko prest.

**ETA SALMENTA NOLA EGITEN DUZU?**

Saltzeko ez gara ferietara joaten, zuzenean ferreteriatara baizik: Euskal Herrian aunitz saltzen da, Valentzian, Burgosen eta Murtzian ere dexente, Madrilen gutixeago.

**ZER DA GEHIEN SALTZEN DENA?**

32 tresna ezberdin egiten ditugu: espumaderak, espatulak, burduntzaliak, kutxarak, tenedoreak... Gehien saltzen direnak kutxareak dira. Hamar kutxareko tenedore bat saltzen da.

**BIZITZEKO HAINA EMATEN DU LANBIDE HONEK?**

Jornal ttiki bat ateratzen da, baina horretarako ordu asko sartu behar dira. Tresna bakoitza akitzeko hamabortz aldiz ibili behar da eskutan. Ni bakarrik aritzen banaiz egunean 30 bat tresna ateratzen dira tailerretik. Neurriaren arabera, 400-500 pezetatan saltzen ditugu, gero ferreterian zenbatean saltzen duten...

❱ *“Jornal ttiki bat ateratzen da lanbide honetan, baina horretarako ordu asko sartu behar dira. Tresna bakoitza akitzeko hamabortz aldiz ibili behar duzu eskuetan.”*




EUSKALDUNEN AMERIKA

# Euskal Astea (eta bertze bat) zortzigarren probintzian



***Bi aste Ameriketan: Estatu Batuetan zehatzago, indio eta bakeroen filmeak kokatzen diren tokian izan gara. Hiru hegazkin eta egun oso bat behar izan genituen ailegatzeko (bidai arina, garai batean hemendik joandako artzainek egin behar izan zutenarekin konparatuz gero). Tiro hotsen ordez, txanpon eta diru-makinen zalaparta gailendu da, apostua legalki onartua dagoen Estatu Batu bakarrean, Nevadan.***

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
**ESTITXU AROZENA**

Renoko Aste Nagusira joateko ideia ez zen gurea izan, NABO-k (North American Basque Organitation) Renoko aste nagusia zela eta Euskal Herritik joan ginenak Donosti Ereski korala, Koldo Iparragirre trikitilaria barne, Urruñako Kuxkuxtu txaranga (noiz hasi bai, baina noiz bukatuko duten inoiz jakiten ez den horiek) eta bertsolariak izan ginen (Bizkaitar bat eta Nafar bat, hango Euskal komunitatearen gehiengoa ordezkatuz); baina besta osatzeko Renoko, Boiseko, Chinoko, San Franciscoko dantza taldeak izan genituen lagun, Gaupasa eta Noka musikariak ahantzi gabe.

Egitaraua da guttienekoa, han bizi diren Euskaldunak elkartzea da helburua. Nahiz

elkar ez ezagutu, elkarrizketak errex hasten ziren: *«Nongoa zara (zera, zira, zea...)»* *«Lesakakoa (eta ez Mugairekoa) eta zu?»* erantzunarekin galdetuz: Lekarozekoa, Elizondokoa, Mugairekoa, Zubietakoa, Donamarikoa, Lesakakoa; baita Gernika, Munitibar, Bakio, Mundaka.... Ongi oroitzen dira euren herrietaz (eurek joan zirenean utzi zituzten bezala noski). Abel Mendegia Renon bizi den Lesakarrak kontatu zigunez, berak aldegin zuenean kotxe partikular bakarra omen zegoen Lesakan. Gaur egun bizi den herrian ordea, ezin da deus ere egin kotxerik gabe.

Renon bildu ziren euskaldunak ez ziren Nevadan laketu direnak soilik, Kaliforniatik baztandar multzoa eta hauen ondorengoak etorri ziren. Idahotik Bizkaitarrak batez ere; Batzuk kotxean 8-9 ordu egin ondotik. Beraiei ez zaie hainbertzerainoko distantzia iruditzen, Euskal Herria zein urruti dagoen kontuan hartuz gero.

Euskalduntasuna ere era bitxian bizi dute, gatazkarik gabe, folklorikoki: *«Nik bertsoak, aizkora eta pilota, ez dut bertze deus nahi!»* izan ziren Esteban Goñi Mugairiarraren hitzak. Bere anaiak, Jesusek, bertsotan ongi egiten du, nahiz eta urtean saio gutti egiten dituztela aipatu. Jubilazioa hartu ondoren sorterrira bueltatzeko nahia agertu digu: *«Hemen ez dut familiarik sortu, eta bakarrik egoteko, hobea da hura»*.

## Renotik Elkora: Euskal Etxeen garrantzia

Elkon jabetu ginen Euskal Etxeen garrantziaz. Urtero bestaren bat antolatzeaz gain, urtean osoan topagune bat bihurtzen da, bertan bizi diren euskaldunentzako. *«Elkoko Euskal Etxea, Lesakako etxe bat kopiatuz egin genuen»* azaldu zigun Nick Fagoaga lesakarrak, Euskal Etxearen arduradunak. Uztaila haseran ospatu ohi dute urteko besta nagusia; gure eskualdeko zenbait kirolari eta musikari izanak dira bertan, eta aunitzetaz oroitzen dira oraindik.

Elkon ez zen deus berezirik ospatzen, baina Euskal Etxean egin genituen bi afariak aberatsak izan ziren: bai



Oihane Enbeita, Estitxu Arozena, Jesus Goñi, Euzkitze eta euskal jatorriko bertze zenbait bertsolari Renoko Euskal Astean.

janari aldetik, baita harreman aldetik ere. Etxetik atera ginenetik jakia nola hondatzen zuten ikusi genuen; Elkon aldiz Euskal sukaldaritzaren gorentasunaz jabetu ziren gure sabelak. *«Guk itxin, Lesakan bazala jaten dugu»* erran zidan Alfontso Igoak harro, bere baratzetik letxuga bat ekarriz. Eskertzekoa da Elkoko jendeak eskeini zigun guztia, hala ere pena bat ere ekarri dut. Elkon nengoela jakin nuen bazela Leon Bereau izeneko Lesakar bat, artzai joandako euskaldunen aferak kontatzen zituzten bertso batzuk egin zituena, ordu erdi beranduago jakin nuenez, bezperan Alfontsoren etxean ezagututakoa zen Leon: *«bertsoak atzenduak ditut, aspaldiko kontuak dire hoiek»*. Leonen bertsoak ez ikastearen pena ere Euskal Herrira bueltan ekarri nuen.

## Nevadatik Idahora: Nafarroatik Bizkaiara?

Idahoko hiriburuan Boisen ospakizunak San Inazio inguruan ziren, nahiz bortz urtetik behin antolatzen duten Jaialdia hurrengo urtean ospatu. Hiri honetako euskal komunitatea bizkaitarra da ehuneko portzentai altu batean, eta kale bakarrean daude Euskal Etxea (500-600 lagunentzako aretoa, jantokia eta ostatua), Euskal Museoa (Kukuxumuxu kamisetak barne) eta Gernika ostatua (xolomo bokata eta guzi).

Bukatze aldera eskerrik asko Euskal Amerikanoei, atsegina izan da zuekin bizimodua konpartitzea! ■

# Artzainen gogoetak zuhaitzetan idatziak

Artzaintza inor guttik nahi zuen ofizioa zen –eta da– Ameriketan: neguko gau hotzak eta udako egun sargoriak milaka buruz osatutako artaldeak zaintzen igaro behar zituzten, bakardade osoan. Oraindik industria ezagutzen ez zuen Euskal Herritik joandako emigranteek, ordea, ederki ezagutzen zuten zer zen aziendekin lan egitea eta ez zioten lan gogorrari, hotzari edo beroari beldurrik. Bakardadea nolabait uxatzeko, berriz, modu bitxi bat bederen bazuten: zuhaitzen enborretan beraien gogoetak markatu. Batzuk izen-abizenak eta urtea idazten zuten *(Jose Goikoetxea 1931)*. Bertze batzuk aberri ezberdinak goraipatzen zituzten *(Biba Frantzia eta Amerika* edo argazkiko *Beti Euzkadi)*. Aunitzek beraien fantasia sexualak ere azaleratzen zituzten, emakumeak biluzik edo zakilak marraztuz. Baso hauek Estatuak babesten ditu orain, ondare artistiko gisara.



**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
Internet:
http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa
e-mail:
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA. Presidentea: Pello Apezetxea. Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien. Zuzendaria: Aitor Arozena. Publizitatea: Kulturkari, S.L. Administrazioa: Amaia Goia. Erredakzioa: Aitor Arozena, Asier Gogortza. Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Martine Goietxe, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza. Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra... Inprimategia: Gertu. Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta; Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Bortziriétako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:
Hego Euskal Herria . . . .2.000 Pta.
Ipar Euskal Herria . . . . .140 Libera
Europa . . . . . . . . . . . . .3.500 Pta.
Amerika . . . . . . . . . . .15.000 Pta.

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



GAURKOTASUNEKO GAIA

# 'Udalbiltza': Euskal Herriko hautetsien biltzarra

## Bilbon hartutako erabakiak garrantzitsuak izanen dira bake prozesuarentzat



Jose Luis ETXEGARAI
Lesakako alkatea. EAJ-EA

Bilboko bilerarako deia 10 alkateren artean egina genuen, eta beldur haundia genuen Euskalduna sala hutsa gelditzeko, izan ere, han 2.200 lagun inguru sartzen da. Hala ere, ia 1800 hautetsi bildu ginen, hagitz aunitz nere ustez. Guk asanbleari aurkeztu genizkion erabakiak ia ahobatez onartu ziren, eta nahiko garrantzitsuak izanen dira oraingo bake prozesuarentzat.
Lehen lehenik, izena jartzea hagitz garrantzitsua zen, eta azkenerako 'Udalbiltza' izena onartu zen. Orain 15 lagun gaude lan batzorde iraunkorrean. Lehendabizi Euskal Herria bere osotasunean hartu eta nola dagoen baloratuko dugu, hau da, diagnostiko bat egin: lan mundua, euskara, administrazioa... behin hori eginta bertze batzorde batek Euskal Herria nazio bezala deklaratuko du. Atzerrian ere ordezkaritza izanen dugu, beste nazioetako instituzioekin harremanak idekitzeko.
Udalbiltzak nazio mailan eginen du lana, beraz, gure herrietan ez da sobera nabarituko epe laburrean. Harremanetan egonen gara denak, dudarik gabe, eta akaso Udalbiltzatik zerbait programatzen ahal da herri guzietarako, baina momentuan nazio mailan eginen da lana.
Gai honek oraindik aunitz emanen du solasteko.

## Europako bertze herriak ere mugitzen hasiko dira laster: Eskozia, Kortsika...



Andres DIHARASARRI
Urdazubiko alk. Urtxume

Bilbon ni nintzen taldeindependienteetako hautetsi bakarra. Badira Euskal Herrian hautetsi independiente eta euskaltzale gehiago, bainan oraino ez dira prest horrelako bilkuretan parte hartzeko.
Luzarorat lan polita eginen du erakunde honek, eta momentuz bake prozesua trinkatzeko balio behar luke. Hala ere, Euskal Herria hiru zatitan partitua egonik, traba franko izanen ditugu. Iparraldean adibidez, frantsesei iduritzen zaie eurek bakarrik direla demokratak, eta konstituzioan sartzen ez den guzia okerra dela. Preziski Iparraldeko hautetsi batzuk Bilbon egotekoak ziren, bainan Parisko eta Iparraldeko politikoek gaizki hartuko zuten beldur ziren, eta horrengatik ez ziren joan.
Nik uste, Europako bertze herriak ere mugitzen hasiko diren laster. Hor daude Bretainia, Kortsika, Eskozia... hoiek ere Europan tokia izateko esperantzaz dira, beren kultura eta ohiturak atxikiz.
Oraingure lurraldetik bertatik hasi behar dugu lanean. Bertzenaz, urtean bitan agiri bat emanez ez da deus egiten. Jendeak behar du jakin zer nahi dugun, zeri buruz ari garen lanean, eta gure herria zer den. Neretako Euskal Herria Europako herri bat da eta Europari buruz lan egin behar du.

## Udalbiltza da Euskal Herriko lehen nazio erakundea



Tomas AZPIROZ
Leitzako alkatea. EH.

Bilbon elkartu ginen hautetsiek nahiko barneratua geneukan zehelbururekin elkartu ginen eta horrek hemendik aurrera nolako eragina eduki dezakeen. Horregatik, jendearen ilusioa eta poza nabaria zen alde horretatik.
Udalbiltza izeneko erakunde honek lurraldetasuna du oinarritzat, eta gaur egun dauden muga politikoeta administratibo guzien gainetik ekialdeko eta mendebaldeko euskaldunak bertan egon gaitezke, eta gaude. Udalbiltza da lehendabiziko euskal nazio erakundea.
Nazioartean euskaldunak kulturalki eta hizkuntza aldetik errekonozituak gaude, baina hala ere, errekonozimendu politikoa falta zaigu. Bestalde, Udalbiltza ezin liteke inolaz ere Euskal Herriko eraikuntza nazionalaren prozesutik aparte utzi.
Iruñean eta Bilbon hautetsi pila bat elkartu gara baina hori ezin da argazki soil batean gelditu. Lanean hasteko ordua da, eta horretarako sortu ziren lan-talde desberdinak. Nik uste praktikan pauso sendoak emanen direla aurrerantzean.
Herrietan nahitanahiez nabaritu beharko da Udalbiltzaren eragina, Udaletan eta udal ordezkarietan oinarritzen den erakundea baita.

ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328·133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

## IRAKURLEAK MINTZO

**2.000 arrazoi**

2000. urtea dela eta ez dela, ez ote gara nazkatuko kontu honekin? Zer eta, guk euskaltegikook ere, hori bera aukeratu behar aurtengo matrikulazio kanpainarako. Baina, ez al zaizu iruditzen badirela 2.000 arrazoi baino gehiago, gure hizkuntza, EUSKARA, zaintzeko?

Izan ere, 2000. urteari ate joka ari garenean, ez dago ingurura begiratzea besterik, EUSKARA zaindu behar dugula ikusteko:

- Zenbat eta zenbat euskaldun euren artean gaztelaniaz abailan.
- Zenbat eta zenbat euskaldun, gaztelaniaz arazorik gabe idazten edo irakurtzen duena eta euskaraz, berriz, nahiko lan!
- Zenbat eta zenbat erdaldun gure herrietan euskara jakiteko beharrik sentitu gabe.
- Zenbat eta zenbat ume eta gazte, eskolan euskaraz eta atsedenaldian gaztelaniaz.
- Zenbat eta zenbat euskaldun umeei eskolako lanetan ezin lagunduz eta ikasten hasteko BERANDUEGI dela esaka.
- Zenbat eta zenbat "Perdona, pero no te entiendo...", "No se vasco...", "Hablame en cristiano"... eta horrelakoak gure herri eta hirietan.

Hau guztia dela eta, ez al duzue uste eginbehar asko dugula gaurtik aurrera ere, bai guk euskaldunok, eta bai inguruan ditugun erdaldunek ere, EUSKARAk beste mende bat iraun dezan?

Beste askoren artean, horretarako izan ditugu euskaltegiak azken urte hauetan Euskal Herrian.

Zuk zerorrek ere, ba al duzu arrazoiren bat euskara zaintzeko eta euskaltegira etortzeko?

MENDIALDEKO
EUSKALTEGIAK. IKA

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenarenizen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapa***k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

**ASADOR LA BASQUE**

*Bisita gaitzazue usategietako igandean*

Tfnoa: 948 635 153 • ETXALAR







**USATEGIETAKO IGANDEA**

**Urriak 17, ETXALAR**

Arratsaldeko 5,30etan
**AUSKALO animazio taldea**

Arratsaldeko 6etatik 10etara
**LUHARTS taldearekin**

Arratseko 8,00etan
**USOEN ZOZKETA**

Antolatzailea: Etxalarko Udala eta Altxata elkartea
Laguntzaileak: TTIPI-TTAPA

KOLABORAZIOAK

☞ **Olivier MAIGRE** *Organbidexka Lepo Askea*

# Usoen migrazioa azken 20 urteotan



TRANSPYR programak aurten 20 urte bete ditu. Emigrazioa ikertzeko beharrak bultzatuta 1979an hasi zen programa hau, Piriniotako ekologisten borondate onari esker.

Organbidexka Lepo Askea elkarteak denbora honetan egin dituen zenbaketetan oinarriturik, hainbat hegazti espezieren migrazio joerak ezagutzea posible izan da. Egun, Organbidexkak sekulako datu biltegia dauka gorderik, partikulazki harrapari, zikoin eta usoen pasari buruz.

Hegomendebaldeko usoen kasuan, kopurua modu arras kezkagarrian jausten ikusi dugu azken hamarkadetan: 60. hamarkadan, 15 milioi usok igaro zuten negua iberiar penintsulan. 80. hamarkadaren hasieran, berriz, 8 milioi izan ziren, eta joan den neguan bi milioi baino guttiago zenbatu genituen. Organbidexkako lepoan behatoki bat dugu, eta handik hainbat adituk egindako zenbaketek ere joera hori berresten dute, 79an baino 200.000 txori guttiago igarotzen baita orain lepo horretatik, hau da, lehen pasatzen zenaren herena bertzerik ez.

Aipatu behar da, udazkenero Pirinioak zeharkatzen dituen uso-populazioaren hilkortasun tasaren %80a ehizak eragiten duela. 15 urteren ondotik ehiztariak ohartzen hasiak dira hondamendi honetaz, baina Frantzia hegomendebaldeko ehiztariek (udazkenero 1.000.000 txori hiltzen dituztenak) ez dute euren jarrera aldatu nahi, bertze herrialdetan mugarik jartzen ez den bitartean.

Bertzalde, euskal mendietan errepide sarea nabarmen hedatu egin da azken urteetan, eta horrek uso-ehiza erosoago bihurtu du, postuetara ailegatzea erraxagoa baita. Kostaldetik barnekalderaino mendi-lepo guziak usategiz josirik daude gaur egun. Iparraldean kontrapasa debekatua dago, baina hegoaldean, berriz, lehen debekaturik egondu zen ehizi mota hau berpizten ari da orain. Ez da erran beharrik, kontrapasa txorien erreprodukziorako arront kaltegarria dela.

Arazo larri honen aurrean, Organbidexkak zera eskatzen du: usategien %20a desagertaraztea, astean bi edo hiru egunez ehiza debekatzea, kontrapasa behin-betikoz galeraztea, eta azkenik, berunaren ordez kartutxoetan altzairuzko perdigoiak erabiltzea, beruna arras kutsagarria delakoz. Guzi hau, gainera, Europan indarrean dauden araudiak betetzea bertzerik ez litzateke izanen.

> **Organbidexkak zera eskatzen du: usategien %20a desagertaraztea, astean bi edo hiru egunez ehiza debekatzea, kontrapasa galeraztea, eta azkenik, berunaren ordez kartutxoetan altzairuzko perdigoiak erabiltzea.**

☞ **Mikel LASARTE** *EHNEko kidea*

# Transgenikorik? Ez, eskerrik asko



Izen honekin sortu zen duela 6-8 hilabete kolektibo desberdinez osaturiko plataforma. Sindikatuak, talde ekologistak, kontsumitzaileen elkarteak eta hirugarren munduko garapenaren alde lanean ari garen taldeek osatzen dugu elkarte berri hau. Bakoitzak esparru desberdinean lan egin arren, iritzi amankomunak ditugu transgenikoen inguruan. Izan ere, duda muda ugari sortzen baitute: alergiak eta osasun arazo desberdinak, kutsadura biologikoa, landare eta animalietan erresistentziak... Aldi berean, produkzio sistema kontrolatzeko bide bat irekitzen dute, multinazional indartsuak baitira aintzindariak produkzio sistema hau bultzatzen.

**Aldarrikapenak:**

Gure ustetan luzamendu bat aplikatu beharko litzateke ezinbestez, beste lekuetan egiten ari den bezalaxe. Europan jada aplikatu dira luzamenduak: Frantzian, Austrian, Luxenburgon, Noruegan eta Grezian, esaterako. Eusko Autonomi Erkidegoan ere debekatuta daude produktu transgenikoak. Nafarroan ordea, Nekazaritza Sailak ez du ardurarik hartzen kontu honetan eta esperimentazio asko eta asko ari dira egiten transgenikoekin. Beste alde batetik, etiketatu egoki bat erabat beharrezkoa da, zer jaten dugun ziur jakiteko. Multinazionalek, ordea, ez dute horrelakorik nahi. Zergatik ote da, hain onak baldin badira elikagai transgenikoak?

**Zertarako erabiltzen dira?**

Elikagai transgenikoak manipulazio genetikoaren bitartez lortzen dira, laborategiko teknika konplexuak erabiliz. Kasu batzuetan landare baten produkzioa haunditzea da helburua, beste batzuetan, berriz, ezaugarri bereziak bilatzen dira, sagarra haundiagoak, edo kolore eta ezaugarri berexikoak. Zonalde honetan transgenikoen inplantazioa txikia da, izan ere abeltzantza nekazaritza baino garatuago baitago, eta gehienbat bigarren sektoren honetan erabiltzen dira teknika hauek.

Zernahi gisa, beharbada arto transgenikoa aurki genezake zonaldeko soroetan. Baina hori bai, oso erraza da aziendarentzat erosten dugun pentsuetan elikagai transgenikoak aurkitzea. Soka luzea dute transgenikoek, guregana ere ailegatzen dena. Erne egon beharra dago afera honen aurrean, izan ere, kontsumitzaileen osasuna dago jokoan. Nahiko eskandalu izan dira dagoeneko (dioxinak, hormonak, behi-eroak...) beste baten arriskua gehitzeko. Guzti honen aitzinean etiketei erreparatzea eta transparentzia eskatzea izugarri inportanteak dira.

> **Zonalde honetan plantazio transgeniko gutti dago, baina oso erraza da aziendarentzat erosten dugun pentsuetan elikagai transgenikoak aurkitzea.**

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Diario de Navarra 99ko irailak 24

*«»Duela urte batzuk zerriak ekartzen nituen Bertizera bazkatzera. Orduan basurde aunitz izaten ziren».*

*«Gazte nintzenean izan nintzen Bertizen eta ez da gauza haundirik aldatu. Hemen ez da marabilla haundirik, hori bai, jauregia arras ongi zaindue dago».*

**Miguel Gamio eta Jose Rementegi**
Arkupeak elkarteko kideak.
ANIZ- BERROETA
Diario de Navarro 99-09-24

*«Nik folk eta blues bezala definitzen dut beti nere estiloa. Psikodelia puntu bat ere badu. Diskoa nahiko akustikoa eta iluna da aldiberean, arront intimista»*

*«Lehendabizi hitzak egiten ditut eta gero musika jarri».*

**Petti**
Berako bakarlaria.
Diario de Noticias 99-10-01

## 11 GALDERA LABUR



**Patxi PEÑA**
GARTZAIN
Alkatea eta su-hiltzailea

◆ **Alkate eta suhiltzaile, nola elkartzen dituzu bi alderdiak?**
❖ Ez dut batere arazorik, baten denbora librea bertzeari eskaintzen diot.
◆ **Zer uste duzu "Sua eta ura, belaunen azpitik" erramoldeaz?**
❖ Erramolde guziei bezala, ez zaiola kasurik egin behar.
◆ **Zer da bizi honetan gehien erretzen zaituena?**
❖ Batez ere jendearen inutilidadeak (bakarren batek ulertuko nau).
◆ **Eta freskagarriena?**
❖ Irri bat une egokian.
◆ **Pilarika bestak ate joka dituzue, nola itzaltzen dituzu bestarako gogoak?**
❖ Zikiro eguneko bazkarian.
◆ **Imagina ezazu altxaferoa bota behar duzula eta sute baten berri ematen dizutela. Zer egin?**
❖ Bestak gibeleratu itzali arte, horrela lehenago itzaltzeko laguntza izanen genuke.
◆ **Mendiko Duatloia antolatu eta parte hartzen duzu. Zer da zailagoa, dena antolatzea edo helmugara ailegatzea?**
❖ Dena antolatzea, dudarik gabe.
◆ **Zer da gogorrena duatloi batean?**
❖ Duatloia ezin da aitzineko egunean prestatu, duatloiak eta triatloiak denborarekin entrenatu behar da bukaeran leher egina ez akitzeko. Beraz, entrenatzea da gogorrena.
◆ **Gurekin internet bidez harremanetan dagoen alkate bakarra zara. Eskualdeko alkate modernoena zarela erran nahi du horrek?**
❖ Ez dut uste, arras erosoa suertatzen zaidala bakarrik.
◆ **Internet giza harremanendako traba dela. Zer uste duzu?**
❖ Batzuk baietz diote, bertzeek ezetz. Kontua da hau ezin dela inolaz ere gelditu. Deitu nahi banauzu gartzain@teleline.es da nere helbidea.
◆ **Zer espero duzu milurte berriaz?**
❖ Munduaren bukaera nola izanen den ikusteko jakinmina dut.

ZALAIN JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
✆ 948 631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

SAROBE okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 63 08 99 - BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA



MARTIKO
Gure baserrietako produktuak
✆ 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA




Alberto RETEGI
abokatua
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 • BERA
✆ 948 630 763

☞ **BIDASOAKO ZINEMALDIA**

# «Etxearen bortxatzea» filmeak irabazi du Laburmetraien Zinemaldiko Urrezko Iratzea

Irailaren 18an banatu ziren sariak Berako Kultur Etxean

Irailaren 18an egin zen Berako Kultur Etxean Bertizko Turismo Partzuergoak antolatutako Bidasoako Filme Laburren II. Zinemaldiko sari banaketa. Bertan, Mateo Gilek zuzendutako *«Allanamiento de morada-Etxearen bortxatzea»* izeneko filmea izan zen lehen saria, honenbertzez Urrezko Iratzea eta milioi bat pezeta eskuratuz. *«Amor de madre-Amaren maitasuna»* filmeak Zilarrezko Iratzeaz gain, Euskal Herriko filme oneneri dagokion saria ere jaso zuen. Josep Linuesa (*«Azalore bati buruzko hitzaldia»*) izan da zinemaldi honetako aktore onena.

Zinemaldi honetan parte hartu duten 33 pelikulak, bi astez Bera, Doneztebe, Irun eta Hendaian eskaini dira.

Filme irabazleak, egunero bizi den errealitate bat azaltzen du: etxera entziklopediak salzera etortzen diren bi gazteen eraso edo akosoa. Aktore, produktore eta zuzendariak egon ziren Berako Kultur Etxean egin zen sari banaketan.

Zine munduarekin zerikusia duten pertsonez osatutako epaimahaiak laburmetraien maila eta parte hartzaileen gorakada azpimarratu zuen eta Bertizko Turismo Partzuergoari antolatzen segitzeko eskatu zion.

Sari banaketan Donostiako Gaztelubide elkarteko Castaña orfeoiaren emanaldia ere izan zen. Bertizko Turismo Partzuergoak zinemaldi honetan lagundu duten elkarte guztiei eskertu zien: Nafarroako Gobernuko Principe de Viana erakundea, Bera, Doneztebe, Irun eta Hendaiako Udalak, Cederna-Garalur elkartea, Martiko, Naparbideak, Beko Errota eta Nafarroako ardoaren izendapena eta zoriondu zituen parte hartu duten produktora, zuzendari eta aktore guztiak.



«Allanamiento de morada» pelikulak eskuratu du Urrezko Iratzea.



«Amor de madre», Zilarrezko Iratzea eta Euskal Herriko filme onena.



«Disertaciones sobre una coliflor», pelikulako Josep Linuesa izan da aktore onena, epaimahairen ustez.

**Bidasoako I. Zinemaldia**
**Palmaresa**

- Urrezko Iratzea eta milioi bat pezeta filme hoberenari: Mateo Gilek zuzendutako ***«Allanamiento de morada-Etxearen bortxatzea»***.
- Zilarrezko Iratzea eta 300.000 pezeta, bigarren saria: Bilboko Koldo Serra eta Gorka Vazquezek zuzendutako ***«Amor de madre-Amaren maitasuna»***.
- Brontzezko Iratzea eta 250.000 pta, gai naturalistikoak, etnografikoak, ingurugirokoak edota paisajistikoak hobekien jorratzen dituen filmeari: J.A. Baionak zuzendutako ***«Mis vacaciones-Nere oporrak»***.
- Brontzezko Iratzea eta 250.000 pta, bake eta giza baloreak modurik hoberenean lantzen dituen filmeari: Iruñeko Iñaki Elizaldek zuzendutako ***«Patesnak, un cuento de Navidad-Patesnak, Eguberrietako ipuin bat»***.
- Brontzezko Iratzea eta 250.000 pta Akitania, Euskadi, Nafarroa edo bertako egile batek egindako filme onenarentzat: ***«Amor de madre»***.
- Brontzezko Iratzea eta 250.000 pta aktore onenarentzat: Madrilgo ***«Disertaciones sobre una coliflor-Azalore bati buruzko hitzaldia»*** pelikulako Josep Linuesarentzat.


**GUY RANDE**
**LARUN Hortz Klinika**
**Kontsulta Egunak:**
**Asteartea, ortzeguna eta larunbata**
**15:30etatik 19:30etara**
✆ 948 631 057
San Esteban karrika • **BERA**

**EGUZKI**
*OSTATUA*
*Era guzietako bokatak,*
*hotzak eta beroak*
*Kaxulak*
*Bazkari eta afari bereziak enkarguz*
*Erretegia*
Legia, 39 - **BERA** - ☎ 948 631 012

**GOYA**
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 948630083 BERA

Xirgil
Jaione Goya
✆ 948 631462
Altzate 1 • BERA

## BERA

# Hirigintza Udal Plan berria egiteko dirulaguntza eskatuko du Udalak

### Oraingo Arau Subsidiarioak –1986koak– zaharkituak daude

ASIER GOGORTZA

Abuztu erdialdera Nafarroako Gobernuak idatzi bat bidali zuen Berako Herriko Etxera. Ohar horretan zera erraten zuten: gaur egun Berak dituen hirigintza-arauak nahiko zaharrak direla, eta dirulaguntzak partitzen ari direla arauak berritu nahi dituzten herrien artean.

Berako Udalbatzarrak ez du aukera hau alferrik pasatzen utzi nahi izan, lehenagotik Arau Subsidiarioetan aldaketa batzuk egiteko intentzioa zuten-eta. Beraz, dirulaguntza onartu bezain laster, lehiaketa publikora ateriko da Hirigintza Udal Plan berriaren proiektua. Gauza bat eta bertzea, heldu den urteko udazkenerako proiektu hori akautua izatea espero du Josu Goia alkateak, berehala egin beharreko aldaketak martxan jartzeko.



**Berako argazki hau berri-berria ez bada ere, egokia da herri-gunea hemendik urte batzutara nola geldituko den ikusteko. Marra xuri horrek adierazten du ingurabidea nondik joanen den gutti goiti beheiti. Lehenbizian Ilekuetatik pasatuko da, bainan luzera Lizuniagako bidera ateriko da ezker aldeko ingurabidea.**

#### Altzate oinezkoentzat bakarrik

Proiektu berrian sartuko liratekeen aldaketa batzuen berri eman dio Josu Goiak TTIPI-TTAPAri: alde batetik, Altzate karrika eta Itzea auzoa oinezkoentzat bakarrik jartzeko asmoa dago. Matzada inguruan egiten ari diren saihesbidetik (Toki Ona institutuaren gibelkaldetik Ilekuetaraino) pasatuko litzateke orduan kotxeak. Bertze aldetik ere, hau da, Ilekuetatik suhiltzaileen parkera eta hortik Kanttonberrira bertze ingurabide bat eginen litzateke kotxeentzat.

Altzate oinezkoentzat jartzearekin batera, Zia errekaren bazterrak berreskuratzea ere pentsatua du Udalak. Horrela, Ilekuetatik Xubi-Xabaleraino herria guruzten duen errekaren bazterrean bizpahiru metroko pasabidea eginen litzateke.

## Udazkeneko kultur agenda bete-betea ageri zaigu

Asteburu honetan, hasteko, Gazte Jokoak abiatuko dira. Intsumisoak soldaduskan izena du larunbateko probak, eta Altzateko karrikan eginen den trebetasun proba dela bakarrik aitzindu daiteke.

Larunbatean bertan, arratsaldeko 8,30etan, Zarauzko abesbatzaren emanaldia izanen da Altzateko elizan, eta berandu xeago, arratseko 10,30ak aldera, Mikel Laboa eta Pettik kontzertua emanen dute Kultur Etxean.

Urriaren 15ean, Mercedes Lezaunek gurasoei zuzendutako solasaldia emanen du Iamotenean. Ricardo Baroja ikastetxeak antolatu du, eta arratsaldeko 6,30etan hasiko da, eta gaia ondoko hau izanen da: "Aprender a decir no a los hijos".

Biharamunean, urriaren 16an, Gazte Jokoak itzuliko dira, oraingoan Piruaren Jokoa izeneko probarekin. Horrez gain, mimika emanaldi bat ere ikusgai izanen da arratseko 8etan Kultur Etxean.

## flash

**Telefono aldaketa**

Osasun Etxeko telefono berria 948 625 021a da, eta ez 948 630036a. Azken hau Bake Epaitegikoa da, eta jende aunitz medikurako orduaeskatzeko deika ari omen da azken boladan. Jakinaren gainean zaudete bada.

**Jon Irazoki Memoriala**

Urriaren 12an jokatuko da Jon Irazoki zenaren omenezko futbol partidua. Orain arte hiru talderen arteko txapelketa egin baldin bada, aurten Beti Gazte eta Gure Txokoa arituko dira buruz-buru.

**Musika eskola**

Zenbait instrumentutan izena emateko astia badago oraindik. Piano eta akordeoi klaseak bete xamarrak daude, bainan gainerakoetan nahiko toki omen dago. Argibide gehiago nahi izanez gero, astelehenetik ortziralera 948 631 205 telefonora deitzen ahal da arratsaldeko 4etatik 7etara. Gogoratu adin guzietako ikasleak onartzen dituztela musika eskolan.

**Fran Puerta**

Toki Ona kiroldegian lan egiten duen Ordiziar honek Galesko Errugbi mundialean parte hartuko du Espainiako selekzioarekin.

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

ABOKATUA
Bidasoa, 26 • © 948 630763 • BERA



## LESAKA

# III. Paleta goma txapelketan izen emateko epea ireki du Batzoki elkarteak

### Urriaren 18a bitarte egiten ahal da eta 3.000 pezeta ordainduko ditu bikote bakoitzak

AITOR AROZENA

Batzoki elkarteak, Nafarroako Rural Kutxaren eta Lesakako Udalaren laguntzaz antolatutako lehendabiziko kategoriako paleta-goma txapelketa urriaren bukaeran hasiko da. Hirugarren aldiz jokatuko den txapelketa honetan izena emateko epea urriaren 18an akautuko da eta bikote bakoitzak 3.000 pezeta ordaindu beharko ditu. Hori bai, izena ematen duten lehendabiziko hogei bikoteek hartuko dute parte, kopuru hori betez gero izena emateko aukerarik ez baita izanen. Txapelketa hasi aitzinetik arauak eta egutegia banatuko dira.

Ligaxka moduan jokatuko den lehendabiziko fasean bosna bikoteko lau talde sortuko dira. Talde bakoitzeko lehenengo bi bikoteek bigarren fasea jokatuko dute. Bigarren fasean, final-laurdenetatik hasita, kanporaketak eginen dira.

Partiduak larunbatero arratsaldez eta igandero goizez jokatuko dira udal pilotalekuan eta astero, aitzineko astean izandako emaitzak eta behinbehineko sailkapena banatuko zaizkie parte hartzen dutenei.

Sariei dagokienez, lau lehendabizikoek trofeoak, opariaeta sari ekonomikoa izanen dute. txapeldunen txapelaz gain.

Izena emateko edota azalpen gehiago eskatzeko Batzoki Elkarteko 948 627522 telefonora deitu eta Julian Igantzitaz galdetu edo mandatua erantzungailuan utzi, bertzenaz, Lesakako pilotalekura deitu, 948 627518 telefonora eta Begoña edo Kastrotaz galdetu.



**Tantirumairu dantza taldea Tarragonan**

Tantirumairu dantza taldeko kideek Lesakako dantzak erakutsi zituzten Kataluniako Tarragona hirian irailaren 18an burututako «Mostra de balls de pastors i danses amb pals llargs» izeneko jaialdian. Lesakarrekin batera, Katalunia, Valentzia, Madril, Asturias, Galiza eta Frantziako dantza taldeek hartu zuten parte.

## flash

**Mendiko pistak eta auzobideak** erabiltzeagatik eskubideak eta tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren aldaketa onartu du hasiera batez. Honako tarifa hauek ezarriko dira: Egurra pasatzen bada 135 pezeta metro kubikoa eta eraikuntza materiala eta makineria astuna pasatuz gero, 135 pezeta tona.

**Zambra enpresa proiektuan** parte hartuko du Udalak, milioi erdi pta. jarriz, Enpleguko Toki Ekimen kalifikazioa jasotzeko.

### Jarduera sailkatuetan aritzeko lizentzien tasak arautu ditu Udalak ahobatez

«Jarduera sailkatu eta kaltegabeetan aritzeko lizentziak emateko eta jarduera eskualdatzeko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskala»ren aldaketa hasiera batez onartu du udalak ahobatez. 700 metro koadro arteko lokalengatik prezio hauek ordaindu beharko dira:

- 50 m² arte, 31.181 pezeta jarduera baimena eta 20.787 pezeta irekitze baimena.
- 51tik 100m² arte, 41.574 pezeta jarduera baimena eta 25.984 pta irekitze baimena.
- 101etik 200 m² arte, 61.362 pta jarduera baimena eta 41.574 irekitze baimena.
- 201etik 400 m² arte, 93.543 pta jarduera baimena eta 62.362 irekitze baimena.
- 401etik 700 m² arte, 124.724 pta jarduera baimena eta 83.148 pta irekitze baimena.

700 metro koadro baino gehiago duten lokalengatik berriz, metro bakoitzeko 187 pezeta ordaindu beharko da jarduera baimena eta 125 pezeta metroko irekitze baimena.

Aldaketa espediente bakoitzagatik 10.394 pta ordaindu behar da.

Manuel Zamorano
Bernizadurak
Pintura
orohar
☎ 689 042 671 • 948 637556
Bittiria, 37 • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

Lurrindenda
Marian Mendiberri
Estetika
Beheko Plaza 8 ✆ 948637791 • LESAKA

BITTIRIA HARATEGIA
✆ 948 627555
Bittiria, 43 • LESAKA

## ETXALAR

# Usategietako igandea urriaren 17an ospatuko da

Arratsaldez biltzen den dirua TTIPI-TTAPA TELEBISTAri laguntzeko izanen da

PELLO APEZETXEA

Urriaren hirugarren igandea, aurten hilaren 17a, izanen da, beti bezala, Usategietako Igandea. Jendearen joan-etorria izaten da gertaera nabarmenena. Eguraldiak lagunduz gero, Lizarieta eta Iarmendi inguruak bisitariz betetzen baitira goizaldean, eta arratsaldean, berriz, herriko plaza. 5etatik 6etara, zango-luzeko Auskalo Taldeak plaza alaituko du, eta ondotik Luharts musika Taldeak, 10ak arte. Plazan bertan ostatua plantatuko du Altxata Elkarteak. Errifarako txartelak ere salduko dira, ohitura den bezala; zortziak aldera 12 uso eta TTIPI-TTAPA TELEBISTAko bideo sorta zozketatuko baitira. Biltzen den sosa, TTIPI-TTAPA TELEBISTArentzat izanen da.

### Uso ehiziko enkanteari sesta

Hamar posturi eman diote sesta. Ondoko enkantean, ordea, ez zen borroka haundirik izan ehizturien artean, elkarrekin aintzinetik konponduak baitziren. Omen. Hala ere, 23garren postuari 102 puntu gehiago eman ziozten, biligarrotarako ona izan behar du. Denetara, sesta eta ondoko subastarekin, 486.000 pezeta gehiago jasoko ditu herriak.

### Ur gehiago behar

Uda idorra joan delako, buruilean ur eskasia sumatu da. Agorteaz gain, ur erabiltzea ere aunitz haunditu da, batez ere igerilekuak eta jatetxeak direla medio. Depositukoiragazki edo filtroak ere sobera fin ez ote dabiltzan susmoa bada, ura zenbaitetan zikina etortzen denez. Filtroak begiratu eta ur gehiago hartzea pentsatu du Udalak. Gobernuaren dirulaguntza ere eskatuko du.



**Santa Krutzeko zugia konpondu dute**

Aspalditik desegiten ari ziren zugiko paretak eta arriskutsu ere bihurtzen ari zen han ibiltzea. Nahiz eta zugia bera harri ederrez eraikia izan, gaineko paretek harri xehea zuten gehiena eta morteroa txarra. Santa Krutz egunerako, Udalak zugia konpondu eta gotortua utzi du.

### Sara eta Etxalar arteko hartuemanak indartu nahia

Sarako udal ordezkariek, bi herrien arteko harremanak indartu nahia agertu omen dute. Gazteen arteko elkartze batzuk eginagatik, eta udalen artekoren bat, duela urte batzuk hartuemanak ugariagoak zirela iduri du. Batetik bertzera ibiltzeko gaur hainbat autorik ez zelarik.

### Alikantetik landa-etxeak ezagutzera

24 lagun izan dira herrian, Alikantetik autobus batean etorriak. Beren helburua, landa-etxeak ikustea. Etorritakoek landa-turismoko ikastaldia egina dute, eta etxeak nola prestatuak dauden eta beraien ingurua nolakoa den ikusi nahi zuten.


ANA
janaridenda
Bittiria, 41• ✆ 948637518
LESAKA

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE
ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA

HERRIKO
OSTATUA
Jatetxea
✆ 948635290 ETXALAR

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

ELENA
ENGLISH
✓ Matrikulazio epea zabalik
✓ Helduak (FIRST) eta haurrak
✓ Maila guztiak
Tel.: 670 433 157
LESAKA • ETXALAR

KOXKILA
OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

HARITZPE
JATETXEA
✆ 948635235
948635038
GOSARIAK · BAZKARIAK · BOKATAK

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
✆ 948 63 75 58

## IGANTZI







Tortil a eta ajoarriero txapelketaren irabazleak agertzen dira batean, herriko dantzari ttikiak bertzean eta igantziko erraldoi berriak hirugarrenen.

Argazkiak: Oskar Txoperena

# Bestak ederrak egin ondotik, zintzo-zintzo denak lanera

### Mikel Aizpuruak irabazi zuen Artzai-Zakur lehiaketa

OSKAR TXOPERENA

Tarteka erauntsi batzuk botadaditu ere, eguraldi polita izan dugu bestetan. San Miguel egunen, errate baterako, aspaldian ezagutu den eguraldirik ederrena egin zuen, beroa eta guzi. Egitarauari dagokionez, berriz, zer gehiago eskatzen ahal zaio? Bestetan parte hartu nahi izan duenarentzat klase guzitako ekitaldi eta ikuskizunak izan dira, haur, gazte eta adinekoentzat, argazkietan ikusten den bezala.

### Artzai-zakur Lehiaketa

Gezurra iduri badu ere, 20 urte joan dira Meakaundiko parajean Artzai-zakur Lehiaketa egiten hasi zenetik. Maila aldetik gora-behera haundirik izan ez duen ekitaldia dugu hau, egiten den urte sasoiarengatik eguraldiak aunitz baldintzatzen duena. Aurtengoan ez da alde horretatik behinipein aitzakiarik izan. A zer arratsaldea!

Bederatzi artzai izan genituen elkarrekin lehian, Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaiakoak. Zakurren arrazei dagokionez, berriz, border-collie edo bertako artzai-zakur arrazakoak izan ziren gehienak. Ordu pare batez lanean ari ondotik, hiru izan ziren proba guziak behar bezala bete ahal izan zituzten artzaiak, eta horien artean Mikel Aizpurua oiartzuarra "Txati" zakurrarekin izan zen epaileen ustez hoberena. Bere ondotik Antonio Alustiza gelditu zen "Jai"rekin eta hirugarren, hagitz hurbiletik, Mikel Garaiar "Mendi"rekin. Probaren ondotik sari banaketa izan Meakaundi bertan eta herrian artzaietaantolatzaileen arteko berendua.



Ostargi Optika
OPTIKO OPTOMETRISTA
- Lentillak
- Ikusmen azterketa orokorrak
- Begietako tentsioaren kontrola
- Haurrei errebisioa egiten zaie

Eta behar izanez gero...
ERA GUZTIETAKO BETAURREKOAK DITUGU ZURETZAT

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ✆ 948 63 07 53

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 948627573 • LESAKA

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZTUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 948627572 • Faxa: 948637313

JATETXEA
LA VILLA
Urte guzia zabalik
Tfnoa: 948 63 72 90 • IGANTZI




LESAKA

## ARANTZA

# Azkilarrea eta Aientsa auzoetako pistetako moldaketen berri ematen da udal aldizkarian

### Zuzaineko Bordako eta Telleriko bihurguneak zabaldu dira

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko Etxeak tarteka argitaratzen duen aldizkaria laster ailegatuko da etxeetara. Hortan, Udalak hartutako erabakiak edo egin dituen lanen berri ematen da, hala nola, azken hauteskundetako emaitzak, udal osaketa, komisioen banaketa... Azkilarreko eta Aientsako pisten moldaketen berri ere ematen da. Zuzaineko Bordako eta Telleriko bihurguneak zabaldu dira, bi kotxe gurutzatzeko haina. Udalak makina eta harria ordaindu ditu eta auzotarrek paretak egin dituzte auzolanean. Aientsan, berriz, *todouno* eta porlana banatu dira auzolanean, ehiztari elkarteak, auzotarrak eta Udalaren artean ordaindu delarik.


Eskolako patioa eta gelak pintatu berri dira. Artxibokoa

### Su-egur loteak hartzeko baldinzak

Su-egur loteak nahi dutenek Herriko Etxean egin beharko dute eskaria, urriaren 10a baino lehen. Baldintza hauek kontuan hartu beharko dira: familia bakoitzeko lote bat; lotea hartu eta gehienez hilabete baten buruan egurra bide bazterrera atera, arbaztak mukurutu eta gainean karga jarri; lote bakoitzeko auzolan egun bat egin edo bere balioa eman.

### Ur sareetan hobekuntza lanak

Bordaberriko iturrietatik heldu den ur instalazioan tubo berria sartu da. Auzo horretako eta Azkilarreko iturrietan moldatze lan batzuk ere egin dira. Depositoetako arraildurak moldatu dira.

### Eskolako pintura lanak

Eskolako patioa eta gela batzuk pintatu berri dira. Udaleko langileek eta bertze bi herritarrek egin dituzte lan hauek. Gastua 300.000 pezetakoa izan da.

### Alfabetatze ikastaroa

Arantzan bertan Bortzirietako Euskaltegiak alfabetatze ikastaroa antolatu du, euskaraz leitzen eta idazten ikasteko. Izena emateko Herriko Etxera joan behar da.



EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua
BERA DESINFECCIONES
© 948630155
BERA

PIKABEA pintorak
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

LEGARRA
Legarrea, 9 • © 948 637 030 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira


PAGOLA
TXISTORRAK BADU BEREZKO IZENA
948 630 054
Altzateko plaza, 2
BERA

## SUNBILLA

# Eskolako haur ttikienak beheitiko eskolan hasi dira

### Antzakaitz taldeak bilera du larunbat honetan

JAIONE ETA ALBA

Zenbait eztabaida izan ondotik, ikasturte honetatik aitzinera hiru urtetik sei urte arteko haurrek, Haur Hezkuntzan ari direnak alegia, beheitiko eskolara joan beharko dute. Dirudienez, egokiagoa da etxe hau, aitzinaldean duen josteta lekuarengatik eta bere kokapenarengatik. Orain, ordea, hamar haur hauek kolunpio eta txirristaren esperoan daude jostatu ahal izateko.

**Antzakaitz kultur taldearen bilera**

Larunbat honetan, urriak 9, eguerdiko 12etan, Ulibeltzak elkartean bilera garrantzitsua izanen dute Antzakaitz kultur taldeko partaideek. Gai arras garrantzitsuak izanen dira solasgai, beraz, ahalik eta jende gehien hurbiltzea eskatu dute taldekideek.

**Plater tiraketa saioa ezin akitu**

Irailaren azken larunbatean plater tiraketa izan zen Olegi inguruan. Eguraldi txarra zela eta ezin izan zuten saio guzia akitu, beraz, eguraldi hobea egiten duen egun batera arte esperatu beharko dute kirol honen zaleek.

**Agiri eta paper ofizialak egiteko ordenantza moldatu da**

Sunbillako Herriko Etxean agiria edo paper ofizialak egiteko eta tramitatzeko ordenantza aldatu du Udalak. Aldaketa prezioetan eman da gehien bat. Honela, alkateari edo Herriko Etxeari zuzendutako eskarietan, orri bakoitzeko 50 pezeta ordaindu beharko da. Erreziboak edo lehendik egindako paperen ziurtagiria egiteagatik 100 pezeta. Ordain-ziurtagiriak edo alkatearen baimena behar duten paperak egiteagatik eta norbaitek agiriren bategitea eskatzen badu, 300 pezeta. Udal dokumentoen fotokopia bakoitza 30 pezeta ordainduko da orri arrunta bada (DIN A4) eta 60 pezeta DIN A3 tamainakoa bada. Agiriei konpultsa emateagatik 200 pezeta ordainduko da. Paperez gain, hirigintzari buruz egiten diren ahozko kontsultak ere kobratuko omen dira hamar minutu baino luzeagoak badira: hamar minutuko tarte bakoitzarengatik 300 pezeta ordaindu beharko da. Prezio guziak udal bulegoetan daude interesatuen esku.



**Ameriketan bizi den Xakitok sorterria bisitatu du uda honetan**

Joxantonio Zugarramurdi 'Xakito' aurten etorri da San Tiburtzio bestak ospatzera. Aspaldiko urteetan Loveland-Coloradon bizi da, Carol emaztea eta bi semeekin. Gustora bizi da Estatu Batuetan, bainan Paretazaharreko mendi inguruak nola ahaztu! Hemengo berri ere izaten du TTIPI-TTAPAren bitartez. Hemen egon den aste horietan, zenbat oroimen goxo ez ote da pilatu bere buru bihotzean! Heldu den urtean bertze murgilaldi bat egiteko prest dago. Aupa Joxantonio!


Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera © 948630735



FOTOKOPIAK
txuri beltzean
KOLORETAN
PLASTIFIKAZIOAK
ENKUADERNAZIOAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
KULTUR ETXE AURREAN
BERA
Tel-faxa: 948 63 15 21

BEINTZAko OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN



Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

## DONEZTEBE

# Udazkenerako prestatu dituen ekitaldiak aurkeztu ditu Erreka mendi taldeak

Mendiaren Astea antolatu du abenduaren 18 eta 19ko aste hondarrean

PATXI IRIARTE

Erreka Mendi Taldeak udazkenean eginen dituen ateraldien eta Mendi Astearen berri eman du. Lehendabiziko ateraldia igande hometan egin dute, Aritxulegitik Aiako Harrietara.

Hurrengoa urriaren 17an izanen da, Auñamendira. Belaguatik aterako dira eta egun berean eginen da itzulia, kanpoan lo egin beharrik gabe. Hirugarren txangoa Baztan aldera eginen dute, Itxusiko harriak eta bertan dauden saiak ikusiz. Gero, azaroaren 7an, gau martxa eginen da Belatetik Doneztebera. Aipatu behar da joan den urtean ekitaldirik jendetsuena izan zela hau. Azaroaren 14an Iparlara joanen dira eta azaroaren 28an Bonozorrotz eta Zuatxapira, Leurtzako urtegien gainkaldean. Abenduan sartuz, 12an Etxalartik Doneztebera mendi trabesia eginen da, Bertiztik igaroz. Urtea akitu baino lehen bertze bi ateraldi eginen dira. Eguberri egunean Saioara joanen dira, turroiak eta txanpaina hartuta eta Urtezahar egunean Mendaurrera.

Mendiaren Asteari dagokionez, abenduaren 18 eta 19ko aste hondarrean burutuko da. Bazkariaz gain, ikastaroren bat antolatu nahi da. Gogoratu, eraberean, Konstituzioko zubian Pirinio aldera joanen direla Errekakoak, elurra zanpatzeko intentzioarekin.



**Beti-Alai Doneztebeko txaranga gazte berria**

Beti-Alai txaranga gaztea da Doneztebeko Musika Eskolaren azkeneko fruitua. Taldekide berriak hartzeko zabalik badaude ere, momentu honetan Pascual Bertiz, Andoni Bertiz, Andoni Blas, Jon Apeztegia, Ramontxo Etxebeste, Iker Irazoki, Mikel Telletxea, Javier Bertiz, Koldo Legasa, Laura Reguera eta Mikel Ripodas arduradunak osatzen dute talde gazte eta animoso hau.

### Emakumeen paleta-goma txapelketa hasi da

Erreka elkarteak bosgarren urtez antolatutako emakumezkoen paleta-goma txapelketa ere jokatzen hasi da. Berrikuntza bezala, aurten bikoteak zozketa bidez egin dira eta zortzi osatu dira: Elizaintzin-Lizardi, Taberna-Martinez, Telletxea-Eugi, Feito-Sanz, Montes-Dagerre, Dutturi-Argain, Dagerre-Boubeta eta Gurrutxaga-Altzugarai.

## NARBARTE

### Istripu batek errepide nagusia itxi zuen

Irailaren 30eko arratsaldean kamioi batek San Migel karrikako etxe baten kontra jo zuen eta, ondorioz, errepide nagusia itxi egin behar izan zuten. Hiru hilabetetan laugarren aldiz jo du kamioi batek etxe honen kontra. Han bizi den Clarita Arretxea Ibarra, 82 urteko emakumearen ustez, *«kamioiak abiadura haundia heldu dira eta hemen bidea estutu egiten da. Norbait aitzinetik heldu dela konturatu orduko ez dute frenatzeko astirik, eta bertze autoa ez jotzeko gure etxearen kontra jotzen dute»*.

Istripuaren unean, etxean bizi diren guziak bertan zeuden, adineko hiru emakume, senar-emazteak eta bi neska, denak familiakoak.








ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tel: 948 45 04 91

Hari Cruz LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE
2000. urtean sartzeko presta zaitez kolore eta ehunetan dauden azken nobedadeekin

☞ ELGORRIAGA

# Ale gutti eta polemika haundia Onddo eta zizen Jardunaldietan

## Carmen Verak Onddoaren Bidearen kontrako salaketa jarri du

TTIPI-TTAPA

Larogei lagunek parte hartu zuten irailaren 19an Elgorriagan burutako Onddo eta Ziza lehiaketan. Salvador Arozarena zenaren omenez egindako onddo biltze honetan ale gutti bildu ziren. Izan ere, egun guzian euria eginagatik lurra idorra omen zegoen oraindik. Maritxu Petrirena izan zen bigarren edizio honetako irabazlea.

Aurtengoan, ordea, espero ez zen hautsa harrotu da Onddo eta Zizen Bidearen inguruan. Carmen Vera Arretxeak denuntzia jarri dio Elgorriagako Udalari. Carmenek Bostorratz inguruan duen lur eremu batean kalteak sortu omen ditu bide horrek. *«Bide seinale bat jarri dute nere lurrean, eskabadora sartu zen eta ormigoia ere erabili zuten. Ez hori bakarrik, harri haundi batzuk ere hartu dituzte».*



**Maritxu Petrirenak Javier Marcoteguiren eskutik jaso zuen lehen saria. Beraien ondoan, ezker-eskuin Lorena Galarregi (Onddoen Kofradiaren idazkaria), Elisa Marin (Salvador Arozarenaren alarguna) eta Jose Migel Galarregi alkatea.**

Jose Miguel Galarregi alkatearen ustez, ordea, bisitariei informazioa emateko seinaleak bide publiko batean jarri dira. *«Halere, huts egin dugula erabakitzen bada moldatuko dugu».*

☞ IKASTAROAK

# Informatika ikastaroak antolatu ditu Cederna-Garalur elkarteak

## Urriaren 15ean akituko da izena emateko epea

Cederna-Garalur elkarteak antolatutako informatika ikastaroetan izena emateko epea urriaren 15ean akituko da. Urriaren 18tik 20ra, Windows 98 erabiliz gure ordenagailua antolatzen ikasiko da, 4.500 pezetaren truke. Urriaren 21etik 22ra Microsoft Word programarekin dokumentuak sortzen ikasiko da. Urriaren 25etik 27ra, Interneten korreo elektronikoaren aukera guzietaz baliatzen ikasiko da. Urriaren 26tik 28rana bigatzaileen aukeren berri emanen da. Azaroaren 2tik 3ra Word programako lanak hobetzen ikasiko da, horretarako plantillak erabili eta dokumentazioa antolatuz. Azaroren 4an eta 5ean Word-ekin mailing-ak bidali eta etiketak sortzen ikasiko da. Azaroaren 8tik 10era, azkenik, enpresa ttikien gestiorako Excel programa erabiltzen ikasiko da: aurrekontuak, fakturak, albaranak...

Ikastaro guziak arratsaldeko 6etatik 9etara emanen dira Doneztebeko San Migel eskolan. Cederna-Garalur erakundeak ikastaroaren prezioaren %75 ordaintzen duela kontuan hartuz, modu onean ateratzen dira ikastaroak: 4.500 pezetako bi ezik, guziak 3.000 pezetatan.

☞ ITUREN

### Xabier Ariztegi zena gogoratu zen Joaldunen Egunean

IBAN ISASI

Ibintza kultur taldeak antolatutako joaldunen egunak urtero bezala arrakasta haundia izan du.

Irailaren 18ko egitarautik kanpo zegoen ekitaldi batekin hasi zen eguna. Joaldunek herriaren izenean egindako oroitarria oparitu zioten istripuan hildako Xabier Ariztegi zenaren familiari. Goizean goiz joaldunek beraien itzulia hasi zuten Ameztiako baserrietan barna. Beraiekin batera, herriko trikitilariak aritu ziren. Ondotik, behin herrira jautsita minutuko ixilunea gorde zen eta gero, herri kirol apostua jokatu zen plazan: Lasaga eta Iturengo gazteek elkarren kontra aritu ziren aizkoran, txingetan eta lasterka. Ondotik, Xabier Amuriza eta Jexux Mari Irazu bertsolariak aritu ziren. Aitziber trikitilariak ere kantu bat eskaini zion Xabier Ariztegiri. Bazkarian 110 lagun bildu ziren eta ondotik bertso saioa izan zen berriz. Arratseko dantzaldian giro polita jarri zuten Mikel Salaberri eta Ainarak.

### Rain Man pelikula Ibintza taldearen eskutik

Irailaren 19an Aurtizko pilotalekuan Rain Man pelikula eskaini zuen Ibintza taldeak. Jende dexente bildu zen.

1999ko azaroak 7/22. zenbakia

EUSKARA BATZORDEEN

Berriak

Bortzirietako
Euskara
Mankomunitatearen
Argitalpena

Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunidadea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 948 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-ttapa

# *Baserri auzoetako mapak jarri dira Bera, Etxalar eta Igantzin*

Herri hauetan ikusten ahal dira, jada, baserri auzoetan barrena ibiltzeko laguntzen duten mapak: baserrietarako bideak, baserrien izenak eta beraien kokapena; non diren, alegia. Bidenabar, zenbait erreka eta mendi nagusi, eta ikusgai bereziren bat ere adierazten dira.

## Historia luze bat

Bai, urte batzuk joan dira, mapen asmoarekin hasi ginenetik. Uste baino luzeago joan baitzaigu, bi adarreko historia hau: mapak egitea eta behar zen sosa eskuratzea. Mapetan baserri izenak idatzi behar zirenez, izen horien idazkera egokia eta ofiziala behar genuen. Orduan ari zen, hain zuzen, Jimeno Jurio buru zuen talde bat, Nafarroako Gobernuaren aginduz, katastrorako paraje eta etxe izendegia prestatzen. Beti bezala, lan hori ez zen guk nahi bezain abudo burutu eta gure eskuetara etorri. Mapak berak ere, Nafar Gobernuak eskalan egindakoetatik kopiatu dira.




**Berako Zalain auzoan jarritako mapa.**

## Diru eske

Mapak paperean herrietako Euskara Batzordeek prestatu badituzte ere, eta dohainik noski, mapa horiek kanpoan paratzeko moduan egokitzea, beren panel eta euskarriekin, enpresa espezialdu baten lana izan da, eta ez merkea. Lanaz gain, eguzki eta euriaren eragina gainditzeko materiala behar baitu. Nola ordaindu? Euskara Mankomunidadeak berak horrenbertzerako dirurik ez zuenez gero, Udalengana jo genuen lehenbizi. Ez ginen, ordea, horretan gelditu. Mankomunidadea saiatu zen Iruñean, Gobernuko ate batzuk irekitzen. Turismoko Departamendutik laguntza agindu ere egin zuten, hondarrean deusezean gelditu zena. Cederna-Garalurretik soilik etorri da dirulaguntza, haundia ez bada ere, ehuneko hamarra. Gainerakoa, Udalen kontura izan da.

## Historia ez da akautu

Ez, historiari ez diogu oraindik akabilarik eman. Paratu ere ez dira mapa guziak paratu. Lesaka eta Arantzakoak, adibidez. Etxalarren ere falta da bat edo bertze. Horrez gain, ordea, historiaren bigarren zatia mapa horiek erabiltzea da, mapak begiratzea, etxe izenak ikastea, izenak mapan dauden bezala idaztea. Errate baterako, medikua edo turistak heldu direla eta, eriaren etxekoak edo landa-etxeko nagusiak karrikara etorri dira, orain arte, baserriko bidean laguntzeko. Espero dezagun hemendik aintzinera baserritarrak etorri beharrik ez izatea. Bertze adibide bat. Ikastetxeetan karrika eta baserri auzoak, beraietako etxeak nahiz bideak, errekak, etabar ikasteko material hauetaz baliatzen ahal dira, nonbait dagoeneko hasi diren bezala. Herriko geografia da, noski, lehenengo eta beharrezkoena. Eta gisa honetara, gauza gehiago aipatzen ahal genuke.

**1. taula**

| | A | B | D | GUZIRA |
|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | 6 | 17 | 159 | 182 |
| Lehen Hezkuntza | 5 | 56 | 352 | 413 |
| DBH | 47 | 35 | 241 | 323 |
| Batxilerrak | 51 | . | 43 | 94 |
| Heziketa Zikloak+Lanbide hast. | - | - | - | 60 |
| GUZIRA | 109 | 108 | 795 | 1.072 |

**2. taula**

| 3-16 urte artean | A | B | D | GUZIRA |
|---|---|---|---|---|
| Arantzako Herri Eskola | - | - | - | 45 |
| Bera: R.Baroja Ikast. Publikoa | - | - | 68 | 68 |
| Bera: Labiaga Ikastola | - | - | 216 | 216 |
| Bera: Jesusen Bihotza ikast. | 11 | 73 | - | 84 |
| Bera: Toki Ona Institutua | 47 | 35 | 138 | 220 |
| Etxalarko Landagain Ikast. Pub. | - | - | 53 | 53 |
| Igantziko Eskola Publikoa | - | - | 44 | 44 |
| Lesakako Irain Ikastetxe Pub. | - | - | 113 | 113 |
| Lesakako Tantirumairu Ikastola | - | - | 75 | 75 |
| GUZIRA | 58 | 108 | 752 | 918 |
| % | *6,3* | *11,8* | *81,9* | *100* |

# *Bortzirietako matrikulazioari buruzko datuak*

Hasi berria den 1999-2000 ikasturtean, Bortzirietako bederatzi ikastetxeetan banatuak 1.072 ikasle daude, hiru urte eta unibertsitatera bitarteko ikasketak egiten. Azken urteotan irakaskuntzan hainbertze aldaketa izan ondotik, gaur egun sistema berria finkatua dago.

Beraz, haurrek hiru urtekin hasten dira eskolan (zenbaitetan 2 urtekoak ere hartzen dituzte) eta sei urte bitartean Haur Hezkuntza delakoa egiten dute (lehen Aurre Eskola zena). Ondotik, hamabi urte izan arte Lehen Hezkuntzako sei maila egiten dituzte (lehen OHO izanen zena). Hortik DBH delakora pasatzen dire eta hau, hamasei urterekin bukatu ohi dute. Hori kontuan harturik, aurten 1. taulan ageri den bezala banatuak daude ikasleak.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza honako ikastetxe hauetan egiten da: Arantzako Herri Eskola; Berako Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoa, Jesusen Bihotza Ikastetxea eta Labiaga Ikastola; Etxalarko Landagain Ikastetxe Publikoa, Igantziko Eskola Publikoa eta Lesakako Irain Ikastetxe Publikoa eta Tantirumairu Ikastola.

DBH berriz, hiru ikastetxetan egiten da: Berako Labiaga ikastolan eta Toki Ona Institutuan eta Arantzako Herri Eskolan (DBHko 1. eta 2. mailak)

DBH (nahitaezko hezkuntza prozesua) bukatu ondotik, Toki Ona Institutuan batxilerrak, heziketa ziklo-

ak edo lanbide hastapena egiten ahal dira.

Hori guzia kontuan harturik, bigarren taulan ageri dira ikastetxez ikastetxeko datuak.

## Zer dira ereduak?

Jakina denez, Bortzirietan hiru ikasteredu ezberdin daude: A, B eta D izenekoak. Horiek Nafarroako Gobernuak ezarri zituen 1988. urtean dekretu baten bitartez. Maiz eredu hauei buruzko datuak goiti eta beheiti ibiltzen ditugu baina azal dezagun bakoitza zer den.

• **D Eredua:**

Eredu honetan ikasgai guziak euskaraz ematen dira, *gaztelania* ikasgaia izan ezik. Bortzirietan eredu hau ematen da Arantza, Etxalar, Igantzi eta Lesakako eskola-ikastoletan, Berako Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoan nahiz Labiaga Ikastolan (3-12 urte) eta Toki Ona Institutuan nahiz Labiaga Ikastolan (12-16 urte). 1999-2000 ikasturtean 3-16 urte bitartean 757 ikasle daude D ereduan.

• **B eredua:**

Eredu honetan gaztelania progresiboki sartzen da ikasketetan. Hau da, 3-6 urte bitartean dena euskaraz ematen diete. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan dena euskaraz ematen diete eta *gaztelania* ikasgai moduan. Ondoren, 3. mailatik aitzinera gaztelaniaz ematen dituzte *gaztelania* eta *inguruaren ezagutza* deituriko ikasgaiak eta gainerakoa euskaraz. B eredua Berako Jesusen Bihotza ikastetxean (3-12 urte) eta Toki Ona Institutuan (12-16 urte) ematen dute. Gaur egun B ereduan 108 ikasle daude.

• **A eredua:**

A ereduan ikasgai guziak gaztelaniaz ematen dira, *euskara* ikasgaia izan ezik. Gaur egun Bortzirietan eredu hau Jesusen Bihotza ikastetxean (3-12 urte) eta Toki Ona Institutuan (12-16 urte) ematen ari dira. Ikasturte honetan 3-16 urte bitartean 58 ikasle daude A ereduan.

**3. taula**

| | A | B | GUZIRA |
|---|---|---|---|
| Gizarte Batxilergoa-1 | 9 | 7 | 16 |
| Gizarte Batzilergoa-2 | 10 | 15 | 25 |
| Batxilergo Teknikoa-1 | 17 | 11 | 28 |
| Batxilergo Teknikoa-2 | 15 | 10 | 25 |
| **GUZIRA** | **51** | **43** | **94** |
| % | *54,25* | *45,75* | *100* |

**4. taula**

| % | A | B | D |
|---|---|---|---|
| 1996-1997* | 13,6 | 11,8 | 74,5 |
| 1997-1998 | 12,0 | 11,2 | 76,8 |
| 1998-1999 | 10,0 | 11,3 | 78,7 |
| 1999-2000 | 6,3 | 11,8 | 81,9 |



## Berako datuak aztertzen

Ikusten denez, gaur egun Bortzirietan gurasoek euskararen aldeko apostua egina dute, izan ere D eredua baita nagusi derrigorrezko hezkuntzan.

Halere, orain arte emandako datuen arabera, Arantza, Etxalar, Igantzi eta Lesakako ikastetxe guzietan D eredua bertzerik ez zuten ematen. Beran berriz, D ereduaz gain, A eta B ereduak ere eskaintzen dira. Edozein kasutan, Beran ere D eredua da nagusi.

A ereduadi dagokionez, Jesusen Bihotza Ikastetxeko iturrien arabera, gaur egun eredu horretan dauden haurrak ez dira berez beratarrak. Kasu guzi-guzietan ikasle hauek beren gurasoen lanbidea dela eta, Berara etorriak dira denboraldi baterako bakarrik.

## Hamasei urtetik aitzinera

Beraz, 16 urtetan bukatzen da nahitaezko ikasketa prozesua. Hortik aitzinera ikasleek aukera ezberdin aunitz dituzte. Bertan gelditzuz gero, Toki Ona Institutuan segitzen ahal dute beren ikasketekin.

Gaur egun Toki Ona institutuan 154 ikasle ari dira batxilerretan, heziketa zikloetan nahiz lanbide hastapeneko ikasketetan.

Bi batxiler mota daude: gizarte batxilerra eta teknikoa. Bakoitzak bi ikasturteko iraupena du. Hauek A nahiz D ereduetan ematen dira. Ikasturte honetako datuak hirugarren taulan ageri dira.

Batxilerrez gain, heziketa zikloak (lehengo lanbide heziketaren antzekoak) eta lanbide hastapena egiten ahal dira Toki Ona Institutuan. Ikasturte honetan 60 ikasle ari dira. Hauetan ofizialki ez dago ikasteredurik aukeratzeko.

## Ikastereduen prozesua

Azkeneko ikasturte hauen errepasoa eginez gero, 3-16 urte bitarteko irakaskuntzan D ereduaren goranzko joera nabarmen ikusten dugu, A ereduaren kaltetan (4. taulan).

# Berriak

## Aitzinera goazi




Etxe izenak ez galtzea inportantea da, gure historia eta kulturaren onerako. Garai bateko izenak errespetatzea, eta etxe berriari izena jartzerakoan, aintzinetik heldu diren moldeak erabiltzea ederra da. Hara hemen egun hauetan Etxalarren paratu den etxe izena.

## Gibelera goazi



Osasunbideak Lesakako Osasun Zentroko fisioterapeuta lanpostua oposizio-lehiaketara atera du. Argitu ez zaizkigun arrazoiengatik, Altsasuko fisioterapeuta izateko euskaraz jakitea beharrezkoa izanen da baina Lesakako fisioterapeuta izateko hori ez da beharrezkoa izanen, nahiz eta legearen arabera bi herru horiek *eremu euskaldunean* dauden eta bietan euskara ofiziala den.

## Liburua




**«Bi ipuin harrigarri»**
Txema García-Viana
Elkarlanean

Gutxi dira abenturazko generoa lantzen dutenak euskal literaturan; gutxi halaber misterio eta polizi istorioak. Txema García-Vianak biak uztartzen ditu liburu honetan.

Baleontzi bat Ternuara bidean, bertze itsasontzi batekiko lasterketan: abenturazko istorio soil bat ematen du, baina «Ana Maria» ontziko tripulazioan hildakoak agertzen hasiko dira: bata pozoituta, bertzea istripu arraro batean, arpoi batez hiltzen saiatuko dira hurrengoa... Izuikarak jota dabiltza marinel eta ofizialak, baina ugari dira susmagarriak haien artean, itzalez beteak denen historiak... Abiapuntu hori du «Izotzaren gorria» kontakizunak. Itsas abenturetako kokalekua hilketa-istorio baterako erabiltzea da bere dohainetako bat.

Auto-stopa egiten duen mutil gazte baten abentura dirudi «Azken erraiua» ipuinak, baina hemen ere ustekabea dauka prestatua egileak, pixkanaka eta ia oharkabean bilduko gaituen magiazko historia bat...

## Herriko Plaza

# *Euskara Mankomunidadeko udal ordezkariak*



J.Ramon Amoros
Arantza



Oskar Goñi
Bera



Ainhoa Goñi
Bera



Patxiku Irisarri
Etxalar



J.Mari Almandoz
Igantzi



Severiano Txoperena
Lesaka



J.Emilio Txoperena
Lesaka

1999-2003 legegintzaldia hasia dugunez, Bortzirietako Udalek aukeratu dituzte Euskara Mankomunidaderako zinegotzi ordezkariak. Ohi den bezala, zazpi ordezkari izanen dira Mankomunidadeko Batzorde Erabakikorra osatuko dutenak. Lesaka eta Beratik bina ordezkari izanen dira eta Arantza, Etxalar eta Igantzitik bana. Ordezkariak ondoko argazkietan agertzen dira: Arantza: Jose Ramon Amoros. Bera: Oskar eta Ainhoa Goñi. Etxalar: Patxiku Irisarri. Igantzi: J. Mari Almandoz. Lesaka: Severiano eta J. Emilio Txoperena.

Batzorde Erabakikorraren lehen bilera joan den irailaren 6an egin zen. Zenbait gai aztertu baziren ere, funtzionamenduari buruzko erabakiak hartu zituzten.

Horrela bada, honako kargu hauek hautatu zituzten:

- ***Mankomunidadeko lehendakaria:*** J. Ramon Amoros.
- ***Lehendakari ordea:*** J. Emilio Txoperena.
- ***Diruzaina:*** Oskar Goñi.

Batzorde Erabakikorraren bilerak hilabetero eginen dira, bigarren astelehenean arratsaldeko 7,30etan Arantzako Herriko Etxean

# TALLERES SANTESTEBAN, S.A.

AXA SEGUROS

**Gaia:**

**Gidatzeko karneta kentzen badizute**

**Gizon honeri gidatzeko baimena kendu eta ezin du lanera joan**

Halere, zoriontsu bizi da. Bera bezala, zu ere zoriontsu izan zintezke. Izan ere gidari honek zuhur jokatu zuen eta **RETICAR** *10* poliza kontratatu zuen, eta orain egoerari aurre egiteko nahiko diru jasotzen du hilero.




**RETICAR** *10* aseguruarekin

✓ Lanera joateko autoa hartu ezin baduzu taxia har dezakezu.
✓ Ibilgailua zure lan tresna baldin bada, oporrak har ditzakezu.
✓ Edo txoferra kontratatu, nahiago baduzu.

**RETICAR** *10* karneta kentzen dizutenerako AXA aseguru konpainiak zure esku jartzen duen asegurua da. Trafikoko arauren bat hausteko gero eta aukera haundiagoa da. **RETICAR** *10*-arekin hilero **250.000 pezeta** jaso dezakezu, zure neurriko gastua eginez.

**Zuhur jokatzeaz gain RETICAR 10 kontrata ezazu**

**Adibidea:**

| | Hileko kapitala | Urteko ordainsaria |
|---|---|---|
| Norbere asegurua | 100.000 pta. | 8.967 pta |
| Matrikula baten edozein erabiltzaileri | 100.000 pta. | 11.204 pta. |

AXA SEGUROS

## Aseguru klase guztiak

- Ibilgailuendako asegurua
- Etxebizitzako asegurua
- Arrantza eta ehizarako asegurua
- Komertziorako asegurua
- Bizitza Asegurua

RENAULT

## Agentzia

**Talleres Santesteban, S.A.**
Leitzako bidea • DONEZTEBE
Tel: 948 450282 - 948 450597

- Aukerako Furgoneta eta autoen salerosketa
- Mekanika, txapa eta pintura konponketak
- Auto eta furgonetendako erremolkeen erakusketa
- Grua Zerbitzua



## DONEZTEBE GASOLINDEGIA

Tel.: 948 451679
Faxa: 948 450857

- Gasolinera zerbitzua
- Presio bidezko garbiketa
- Barnealdeko garbiketa
- Auto-garbitzaile automatikoa

## GOIZUETA

# Urtetik urtera matrikula gehiago ditu Udal Musika Eskolak

Perkusioa ikasteko aukera eskaintzeak eragin haundia izan du gorakadan

ESTEBAN AROZENA




**Ikasturtean landutakoarekin emanaldia eskaintzen dute Musika Eskolakoek.** Artxibokoa

Sortu zenetik izan duen joera mantenduz, Udal Musika Eskolako matrikula kopuruak goiti egin du hasi berria den ikasturtean ere. 1998-99 ikasturtean 50 ikasle eta 81 matrikula izan zituen eskolak. 1999-2000 kurtsoan berriz, 51 ikasle eta 90 matrikula izanen ditu.

Perkusioa ikasteko aukera eskaintzeak (bateria, panderoa, yenbea) eragin haundia izan du aipatutako gorakadan, hamabi herritarrek eman baitute horretan. Honetaz aparte, kitarra, pianoa, trikitixa, kordiona eta txistua erakusten dira musika eskolan.

Javier Irigoien zuzendariak esan zigunez, matrikulazioaz gainoso pozik daude aurten eman diren beste bi berritasunekin. Bat, Haur Hezkuntza mailako neska-mutikoekin solfeo talde bat osatzea lortu dela lehenengo aldiz, eta bestea, goi taldera iritsi orduko Hizkuntz Musikala utzi egiten zutela ikasleek orain arte, eta aurten, alderantziz, mantendu egiten dela.

### Pinuaren izurritearen aurkako tratamendua

Burugorri inguruko insignis pinuei erasotzen dien izurrite edo plagaren kontrako tratamendua egiten ari da Nafarroako Gobernua urriaren 1az geroztik. Helikopteroa darabilki horretarako.

Izurriteari produktu toxikoekin egiten zaionez aurre, urriaren 15a arte edo, tratamenduarekin afektatutako lur-eremuak ez erabiltzea gomendatzen du Udalak (hau da, karakola, onttoedo perretxiku bilketa, aziendak larrean…).

### Txalaparta ikastaroa eman du Arantxa Ansak

Adin guzietako 21 herritarrak parte hartu dute gazte Asanbladak antolatu eta Arantxa Ansak eman duen txalaparta ikastaroan. Neguan ere segitzeko asmoa omen dute batzuk.

## ARESO

# Errekako igerilekuko lanak urte honetan bukatuko dira

Amoarraientzako eskalak ere eginen dira

JUANA Mª SAIZAR

Abenduaren 31 baino lehen bukatu nahi ditu Aresoko Udalak errekako igerilekuaren lanak. Eraberean, amoarrainentzako eskailerak egin nahi dira inguru horretan. Lan hauek egiteko 2.449.000 pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak.

Turismo egitasmo bat ere gauzatu nahi du Udalak. Bidezidor batzuk moldatu eta berritu eginen dira. Lan honen aurrekontua 4.899.000 pezetakoa da.

### Bi pista moldatzen ari dira

Mendiko bi pista konpontzen ari dira asteotan. Uitziko zelaiaraino doanak aldapa oso pikoa zuenez zeharbide berri bat egin dute eta zabaldu eta zola berria jarri diote. Larreko bordara doan pista ere zabaldu eta zolaberritu dute.

### Ehiza postuen enkantea

2.700.000 pezeta inguru atera ditu Udalak ehiza postuen enkantetik, hasierako prezioa baino zerbait gutxiago.



**Herriko bazterrak ezagutarazi nahi dira turismo egitasmoaren bidez.** Artxibokoa

## LEITZA

# Urriaren 16an inauguratuko da Arkiskil futbol zelai berria

47 milioi pezetako aurrekontua izan du

JOSEBA AZPIROZ

Urriaren 16an, Arkiskil futbol-zelai berriaren inaugurazioa eginen da. Eguerdiko ordu batetan Nafarroako Gobernuko Kirol Departamentuko eta Udalaren ordezkariak instalakuntzak ikusiko dituzte. Elkarrekin bazkaldu ondoren, arratsaldeko 4 edo 4'30ak aldera, inaugurazioekitaldia izanen da. Arratsaldeko 5etan berriz, ligako futbol partidua jokatuko du Aurrerak.

Futbol-zelaia egiteko terrenoen erosketak eta obrak 47.227.563 pezeta kosta dira. Jaso den dirulaguntza berriz, 17.000.000 pezetakoa izan da.

Aldagelak ere bukatuak egonen dira egun horretarako. Hauen kostua 19.538.827 pezetakoa izan da.

Aurrera Kirol Elkarteak eta Leitzako Udalak futbol-zelaiaren alokairu hitzarmena sinatu dute eta hiru hilabeteko epean erabilera arautuko duen ordenantza finkatuko da.



Futbol zelaia egiten 47 milioi pezeta gastatu diren bitartean, aldageletan 19 milioi terdi joan dira. Artxibokoa

### Erakunde ezberdinetarako udal ordezkariak

Jose Mari Azpirotz zinegotziak Leitza, Goizueta, Areso eta Arano ordezkatuko ditu Agoitzaldea, Zangotzaldea-Baldorba eta Mendialde guztia hartzen dituen Cederna-Garalur Garapenerako Agentzian. Gainera Administrazio Kontseiluko partaidea izanen da. Bestalde, Oinarrizko Ongizate Mankomunitateko lehendakaria Maite Sarobe izendatu dute eta Iparraldeko Euskara Mankomunitateko lehendakaria, Tomas Azpirotz. Plazaolako Partzuergo Turistikoan Eleni Zabaletak ordezkatuko du Udala.

### Estazioako auzoaren saneamendua

Udalak estazioko auzoaren saneamenduaren eraikuntzaren adjudikaziorako lizitazio deialdia zabaldu du. Kontratuaren aurrekontua 9.685.701 pezeta, BEZ barne da eta lanak egiteko epea, bi hilabetekoa. Proposamenak urriaren 15eko eguerdiko hamabiak baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan. Gainerako baldintzen berri ere bertan izanen dute interesatuek.

## flash

### Akelarrea antzeslana ostiralean

Urriaren 9an, ostirala, iluntzeko 7'30etan, Akelarrea antzeslana antzeztuko dute Hernaniko Akelarrea taldeak. Ikuskizun hau, Kultur Taldeak antolatzen du.

### Ekialdeko Timorren aldeko mozioa

Indonesiak Ekialdeko Timorren aurka daukan politika genozida salatuz eta herriek autodeterminatzeko eskubidea dutela berretsiz Leitzako Udalbatzak mozio bat onartu zuen aho batez.

### Urdiñolako basobidea

Excavaciones y Transportes Villabona Hnos., S.L. entrepresak eginen ditu Urdiñolako basobidearen hobekuntza lanak 7.270.980 pezetan truke. Horretarako hilabeteko epea du.

### Euskara ikastaroa

Urriaren 8a arteko epea duzu IKAren euskaltegian matrikula egiteko. Ikasturtea hilaren 18an hasiko da. Euskalduntzeko, alfabetatzeko, EGA azterketa prestatzeko... aukera ederra.

### Mendizale beteranoak

203 lagun bildu ziren irailaren 26an Leitzan egindako Mendizale Beteranoen bederatzigarren ibilaldian. 50 urte eginak izatea eskatzen zen, baina bi mendizalek 80 urte ere eginak zituzten.

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

ttipi-ttapa
7.100 harpidedun, 25.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
✆ 948 631188

CONSTRUCCIONES SALDIAS
ETXEGINTZA OROKORRA
Teilatu eta fatxada berritzetan espezializatuak
Pintura lanak eta gremio guziak
✆ 607 434397 • 689 701369 • LEGASA
NAFARROA GUZIAN ARITZEN GARA

## ☞ BAZTAN

# Arraiozko saihesbidearen lanak abudo akituko dituzte

### Mardea auzoaren gibeletik pasatuko da errepidea

TTIPI-TTAPA

Iruña-Dantxarinea bideko zatirik arriskutsuenetako bat desagertaraziko duen Arraizko saihesbideko lanak abudo akituko dituzte. Guzira 1.161,5 metro ditu bide berriak eta Mardea auzoaren gibeldetik eta Jauregizarrea jauregiaren aitzinetik pasatuko da. Hiruna metro terdiko bi karril eta metro terdiko bide bazterrak eginen dira, baita zubi berri bat ere. Kasik 300 milioi pezetaren truke bi enpresa ari dira lan hauetan: Azpiroz y Saralegi eta Convial.

Arraiozko herria zeharkatzerakoan hainbat istripu izan dira, azkenekoa duela hiruzpalau aste, kamioi haundi batek Barrentxearen kontra jo zuenean.

### San Migel eguneko Junta Generala

Garai batean nekazariendako arras garrantzitsua izaten zen San Migel eguneko Junta Generala. Orain, ordea, lehengo ohitura zaharrak galtzen ari direla ikusi da: gero eta gutiago dira iratzea probexteko egiten diren eskariak, eta gero eta gehiago iturrietatik ura hartzeko eskariak. Egurloteak egiteko zuhaitzen markatzea ere baimendu zuen Juntak.

Arizkungo San Migel ermitan meza eman zuen Bernardo Sokobehere apezak. 40 bat lagun bildu ziren, gehienak Bozatekoak.

### Datu pertsonalak hobe zainduko dira udal artxibategian

Baztandarren identifikazio datuen berri erakunde publikoek eta banku etxeek bertzerik ez dute izanen, Balleko Udalak onartutako ordenantza berriaren arabera. Informazio hau errolda eta hauteskundetarako zentsoa egiten denean, edo zergak kobratzeko bakarrik utziko da. Pertsonen gaineko fitxategi automatizatu hauen ardura administrazio langileena izanen da, alkatearen agindupean.

### Margoketa eta ehoziri ikastaroak

Haurrendako margoketa ikastaroa eginen da urritik maiatzera. Klaseak astearteero emanen dira, 5,15etatik 8,15etara eta matrikula 6.000 pezetakoa da. Bertzalde, helduendako ehoziri edo *bolillos* ikastaroa eginen da.




### «Done Jakuerantzako bidean» antzeslana Elizondon igandean

Lamixine Berako Antzerki taldearen «Done Jakuerantzako bidean» antzeslanaren estreinaldia eginen da igande honetan, urriak 10, eguerdiko 12etan, Elizondoko karriketan. Ikuskizunak Euskal Herriko eta Espainiako Done Jakue bideak egitea proposatzen du.

*Pertsonaia*

### *102 urteak Mª Josefa Recio erresidentzian bete ditu*

1897ko irailaren 2an jaio zen Lleidan Sor Maria del Claustro Bartoli Miró, beraz, gan den hilabetean 102 urte bete zituen Elizondoko Maria Josefa Recio erresidentzian dagoen emakume honek. Hogei urte zituela, Benito Menniren Ahizpa Ospitalarien Ordenean sartu zen eta bere bizitza osoa buruko eritasunak dituztenak zaintzen eman du: Cienpozueloseko zentroan lehenik, Arrasateko Santa Ageda erresidentzian gero eta, azkenik, Betanzosen (A Coruña). 1992an, erretiratu zenean, ailegatu zen Elizondora. Bizimodu arrunta eramaten du, otoitz egin, pianoa jo, mezetara joan eta eguraldi goxoa denean, paseatu.



Sor Mª del Claustro Bartoli

JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO


BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

ARGIBE OPTIKA
✆ 948 581 391
Santiago 62 - ELIZONDO
Aukera zabala
☛ Anteojoak
☛ Lentillak
☛ Audifonoak
☛ Errebisioak

## BAZTAN



Zikiro-jatearen argazkia, duela berrogei bat urte. Orduan Iaxoako pilotaplazan egiten zen. Gaur egun, mediku kontsulta dago leku berean. Argazkia: Patxi Peñak utzia

# Gartzaingo Pilarika bestak urriaren 9tik 12ra

VI. Mendi Duatloia egun haundian burutuko da, arratsaldeko 5etan

**Larunbata, urriak 9**
**12etan** Txupinazoa ezkil jotziakin eta kalejira txistilariek alaiturik. **3,30 etan** Gartzaingo mus txapelketa. **6etan** "IRUÑA TALDEA"ren dantzasaioa amanaldia. **9etan** Baztan zopak Fransenen
**Gaueko 12etan** Mexikanak,Jalisko Band taldearekin. **1etan** Gau pasa Jalisko Band taldearekin.

**Igandea, urriak 10**
**11etan** «Euskal herrian itsasoa» giñolaren emanaldia. **12,30etan** Mezanagusia herritik kampo direnen alde. **1etan** Gazte bazkarie Bailegiko zelaian. **4etan** Gaztelu erraldoiak eta zezen mekanikoa. **6ak aldera** txokolatada. **8etan** Dantzaldia Jalisko Band taldearekin. **10etan** Mutil dantzak. **12etan** Dantzaldia Jalisko Band taldearekin.

**Astelehena, urriak 11**
**10etan** Futbol partidua: Bailegi taldea - Drintin taldearen aurka. **2etan** Zikiro jatea. **6etatik aintzin** dantzaldia Mikel Salaberrirekin.

**Asteartea, urriak 12**
**Pilarika Egune**
**12:etan** Meza nagusia Aristegiko Ermitan eta ondotik otordue. **5etan** Gartzaingo VI. Mendi Duatloia, Nafarroako txapelketarako baliagarria: 5 kilometro lasterka, 15 km. mendi bizikletan eta azkeneko bi terdiak, berriz ere lasterka. Izen ematea, proba hasi baino ordu erdi lehenago bitarte, 700 pezetarentruke. Partehartzaileei berendua emanen zaie. **8etan** Dantzaldia Mikel Salaberriarekin eta goizaldera "Gaixoa Ni".

## flash

**Txalaparta eta kirikoketa ikastaroak**
Asteazken honetan hasi da Erratzuko Etxelebertzeko Txokoan eginen den txalaparta eta kirikoketa ikastaroa. Adin guzietako jendearendako zabalik dago ikastaro hau, heldu nahiz haurrendako eta dohainik izanen da. Klaseak asteazken, ortzegun eta larunbatetan emanen dira. Erratzuko kultur elkarteak antolatu du, Etxelebertzeko Txokoa eta gazteen laguntzaz.

**Arizkungo Errotaberea** baserriko istegia kixkali zuen suak irailaren 22an. Suteak ez zuen kalte pertsonalik eragin, istegian egurra eta ibilgailu zahar bat bertzerik ez baitzegoen.

**Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeko** berogailu instalazioa berritzeko lanak Iruñeko Valencia iturgintza enpresak egin en du, 6.680.650 pezetaren truke. Udalak deitutako lehendabiziko lehiaketa hutsean gelditu zen.





MENDIALDE
Jatetxea

AMAIUR • © 948453060

BAZTAN FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK
Menditurri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

ZUGARRAMURDI

# Idortearen ondorioz harren arazoa haunditu egin da

## Nahiz eta erremedioak bota belategi guziak hondatzen ari dira

MARGARI ETA KORO

Nekazarien lana gogorra dela ez dugu niorrek ukatu: begi batekin zerura begira eta bertzearekin lurrera. Eta bi alde hoietatik dator azken aste hauetako mixeria. Orain arte idortea zela eta belar gutti heldu bazen, orain harrak barra-barra bazter guziak kasatu nahiez dabiltza. Harren kontu hau urteroko arazoa baldin bada ere, iduri du aurten idortearengatik haunditu dela eta nahiz eta erremedioak bota, nekazariak ikusten du belategiz belategi harrak bazter guziak hondattzen ari direla.



Zugarramurdin bataiatu duten azkeneko haurra, Marta Elgorriaga Zabala, bere gurasoekin batera.

### Aspaldiko partez bataioa izan da herrian

Ez dugu berriz ere errepikatuko herrian haur guti sortzen direla eta ixtorio... Alde onetik ikusiko dugu afera eta kanpoan bizi direnak bedenik herrian bataiatzera ekartzen dituztela aipatuko dugu. Hauxe gertatu da Marta Elgorriaga Zabalarekin, Irundik bere amatxi Maria Eugeniaren herrira ekarri baitute bataiatzera (eta haurra kontent, xoxa eta gozoki batzuk biltzeko aukerarekin). Ea hurrengoan, herrian bertan sortutako baten bataioaren berri ematen dugun...


OLARI

Jatetxea



Tfnoa: 948 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituarekin hornitua



TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO


HEZKUNTZA

### Ikasleendako Aste Berdeak hasi dira

Bertizko Partzuergo Turistikoak eta Nafarroako Gobernuaren Kirol eta Gaztediaren Institutuak laugarren urtez antolatutako Aste Berdeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari diren Nafarroako 700 bat ikaslek hartuko dute parte.

Aste Berdeak Bertizko Partzuergoak hartzen dituen eskualdetan eginen dira, Baztan, Malerreka, Bertizarana eta Bortzirietan. Ikasleek hiru egun igarotzen dituzte inguru honetako aterpeetan, asteazkenetik ortziralera, kirol eta kultur ekitaldi ezberdinak egiten. Goizetan, neska-mutikoek rafting-a egin, zaldian ibili edo bidaxkaz bidaxka ibiltzeko aukera izanen dute. Herri kirolak edo espeleologia praktikatzeko modua ere izanen da. Arratsaldetan, berriz, ingurugiroari buruzko lanak eginen dituzte eta ohiturak eta gastronomia bezalako gaiak ere landuko dituzte. Adibidez, bakoitzak bere taloa egin eta jan ahal izanen du. Afal ondotik, eguneko kirolei buruzko bideoak ikusiko dituzte eta musika adituko dute. Azken eguneko arratsaldean Aste Berdeari buruzko inkesta beteko dute.

Izena emateko epea urriaren 13an akituko da eta ikasle bakoitzak 10.000 pezeta ordaindu beharko ditu –Nafarroako Gobernuak bertze 6.000 pezetarekin diruz laguntzen du–.

SARA

# Euskal Departamenduaren aldeko elgarretaratzeari sustengua herrian ere

## Larunbatean izanen da manifestaldia Baionan

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Larunbat honetan, urriaren 9an, Euskal Departamenduaren aldeko elgarretaratze handi bat antolatua da Baionan. Horren karietarat aarlo guzietako ehun jende ezagunek zerrenda bat osatu dute manifestaldirat deitzeko.

Herri mailan ere, desmartxa bera abian da eta jadanik zonbait herrik beren zerrenda propioa osatu dute, hala nola Sara bere «ehunen deia» prestatzen ari da, eta saratar desberdinez osatu zerrenda hori egun hauetan Sarako etxe guzietarat igorria izanen da, ahalik eta jende gehien manifestaldirat gomitatzeko asmoz.




**Sarako jendeak osatutako «ehunen deia» zerrenda etxe guzietarat igorriko da, larunbatean Baionan izanen den euskal departamenduaren aldeko manifestaldira ahalik eta jende gehien gomitatzeko asmoz.** Artxibokoa

### Errugbi sasoina ez dute ongi hasi basurdeek

Gure errugbilariek joan den buruilaren 19an hasi dute sasoina. Beren multzoan Lit et Mixe, Puyoo, Lesperon, Ziburu eta Kanboko ekipak dituzte. Sarako Basurdeek hastapen zaila izan dute, lehen bi partidak kanpoan jokatu baidituzte eta biak galdu: lehena Puyoon (Bearnen) 9 eta 6, eta bigarrena Lesperonen (Landak) 25 eta 6. Erreserba taldeak hamalauna berdindu zuen Bearneko partiduan.

Urriaren 3an, Lit eta Mixeko taldea hartu beharra zuten Animaniako zelaian, lehen garaipenaren itxaropenarekin. Ondotik Kanborat joan beharrak dira biziki partida gogor baten jokatzerat urriaren 10ean, eta joaneko azken neurketan, saratarrek ziburutarren bisita izanen dute urriaren 17an. Espero dezagun basurdeak erne izanen ditugula ihizi sasoin huntan, ihizturiak hor bait dabiltza tiro egiteko prest!

### Lapurtarren Biltzarra

Urriaren 3an, 20. Lapurtarren Biltzarra ospatu zen Uztaritzen. Duela 20 urte hasi eta geroztikurtero, urriko lehen igandean Lapurdiko hiriburu ohian egiten den besta dugu hau. Ekitaldia helburu jakin batekin sortu zen: euskaltzale eta abertzaleen arteko bilgune bat nahi zuen izan, garai hartan, orain ez bezala, ez baitzen hoinbertze paradarik biltzeko. Aurten ere, karroen bidez, Lapurtarrek beren kezkak adierazten ahal zituzten eta antolatzaileek indar berezia egin dute ahalik eta karro gehien biltzeko.

Halere, oraingoan ere, Saratik deus ez da antolatu, nahiz saratarren ordezkari, Kristian Amorena han zen Eztanda bere taldearekin bazterrak berotzeko asmoz, usaiako bazkari herrikoiaren ondotik.

### Animazioa Omordian Sara eta Senpereko abesbatzei esker

Urriaren lehenean, ortziralez, Sarako Omordian animazioa izan da, Sara eta Senpereko abesbatzek antolaturik. Gure kantariak gero eta gehiago galdetuak dira bazkariak, ezkontzak eta kontzertuak egiteko. Luzaz segi dezatela.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
64310 SARA • Tél. 05 59 54 25 19

ttipi-ttapa
7.100 harpidedun
25.000 irakurle
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
✆ 948 631188


Maderas GOMEN
- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ✆ 948 580 645

## EZKONTZAK

**Jose Angel Zulaika Satrustegi** eta **Patricia Gil Jaurena**, Logroño eta Iruñekoa, Elizondon, irailaren 11n.
**Miguel Angel Agerrea Almenar** eta **Mª Esther Ugalde Ibarrea**, Iruñekoak, Elizondon, irailaren 18an.
**Luis Robledo Zubiria** eta **Jone Miren Mezkiriz Rouget**, Donostia eta Iruñakoa, Almandozen, irailaren 18an.
**Jagoba Zubikoa Biela** eta **Ana Gonzalez Arrijuria**, Elizondokoak, irailaren 25ean.
**Lorenzo Errotaberea Etxepare** eta **Mª Dolores Garcia Cruz**, Arizkun eta Noiakoa (A Coruña), irailaren 25ean.
**Ignacio Eraso Otxotorena** eta **Mª Goretti Zestau Urkiola**, Arribe eta Leitzakoa, irailaren 11n.
**Jose Ramon Garziarena Baraibar** eta **Miren Guridi Ormazabal**, Leitza eta Beasaingoa.
**Bertrand Soudre** eta **Sandrine Sistiague**, Senpere eta Sarakoa, buruilaren 19an.
**Guy Mounho** eta **Martine Agirre**, Sarakoak, buruilaren 25ean.
**Francisco Otxoteko Telletxea** eta **Mª Jesus Perugorria Urkia**, Lesaka eta Etxalarkoak, buruilaren 4an.
**Juan Luis Telletxea Eleta** eta **Sara Zelaieta Elizaga**, Oitz eta Berakoa, irailaren 25ean.
**Jose Mª Arraras Fernandez de Gorostiza** eta **Nagore Gabellanes Marieta**, Donostiakoak Goizuetan, irailaren 18an.
**Pablo Fernandez Insausti** eta **Mª Olatz Elizegi Berroeta**, Ordizia eta Goizuetakoa, irailaren 25ean.

## JAIOTZAK

**Lorea Plaza Martinez**, Lekarozkoa, irailaren 19an.
**Elur Meoki Martinez de Icaya**, Elizondokoa, irailaren 20an.
**Danel Zabala Ieregi**, Leitzakoa, irailaren 12an.
**Ane Bazterrika Legazkue**, Iturengoa, abuztuaren 27an.
**Ekhine Txokarro Ezkurra**, Narbartekoa, irailaren 12an.
**Beñat Etchart Verdu**, Urdazubikoa, abuztuaren 10ean.
**Eztitxu Gerard**, Sarakoa, buruilaren 4an.
**Alexandra Irazoki Irazoki**, Berakoa, irailaren 18an.
**Alaitz Aranibar Iparragirre**, Berakoa, irailaren 25ean.
**Iker Salaberria Orbegozo**, Goizuetakoa, abuztuaren 29an.
**Mikel Apezetxea Etxeberria**, Goizuetakoa, irailaren 5ean, 86 urte.

## HERIOTZAK

**Mª Arantzazu Etxandi Juanikotena**, Arraiozkoa, irailaren 16an, 35 urte.
**Miguel Eraso Zabaleta**, Berroetakoa, irailaren 20an, 92 urte.
**Ambrosio Garcia de la Torre Valgañón**, Elizondon, irailaren 22an, 82 urte.
**Silverio Villanueva Urrutia**, Elizondon, irailaren 24an, 72 urte.
**Mª Lourdes Ornilla Gobeo**, Elizondon, irailaren 24an, 57 urte.
**Teodora Iparrea Arratxea**, Iruritakoa, irailaren 27an, 72 urte.
**Luis Villareal Irisarri**, Etxalarkoa, buruilaaren 22an, 80 urte.
**Juan Pagola Irazoki**, Berakoa, irailaren 19an, 68 urte.
**Michel Cougnot**, Beran, irailaren 19an, 42 urte.
**Jesusa Silanes Martinez**, Goizuetakoa, irailaren 5ean, 86 urte.



SOULE
Hileta artea
Tfnoak: 948 453444 • 608. 779903
ARIZKUN


KULTURKARI
Inprenta lanak egiten ditugu
• Kartelak
• Boletoak
• Faktura taloiak
• Bisita txartelak
• Aldizkariak
• ...
Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!
✆ 948 63 11 88

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Doneztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

PRODUCTOS ARTESANOS
ERROTAZAR®
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

## DESKONTUAK

### ZAPATAK

kalotxa zapatadenda

Kalotxa

Kanttonberri, 6 • BERA
Tfnoa.: 948 631 516

- **Zure erosketak %10 merkeago**

### LENTZERIA

Deñe

Beheko Plaza • LESAKA
Tfnoa.: 948 62 75 14

- **%10 merkeago lentzeriako artikuluetan**

### PENTSUAK

MENDAUR PENTSUAK

Aparan • DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 18 45

- **%5 merkeago** zakur, katu... pentsuak

### TAILERRAK

SEAT
DATUCELAY

**SEAT ZERBITZU OFIZIALA**
**Baztan-Bortziriak-Malerreka**

Santiago, 88 ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 02 25

- **%10 merkeago bateriak eta amortiguadoreak aldatzea**

55 ZERBITZU ETA SALTOKIETAN




# TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.
Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA
☎ **948 63 11 88**

## Mikel Laboa eta Pettiren

**kontzertuko sarreren irabazleak:**

Fausti Juanikorena (Zubieta)
Eusebio Urroz (Labaien)
Jon Altzuguren (Bera)
Asun Irazoki (Bera)

# BORDATXO




**HEMENTXE GAUDE!!**

**Urriaren 9an irekiko dugu berriz**

**Astero 6 sarrera** zozketatuko dira. Zozketan parte hartzeko, deitu **ortzeguna baino lehenago** 948 63 11 88 telefonora.

## DESKONTUAK

### ARROPAK

SAIOA Boutique

**BAKERO eta SPORT ARROPA**

Karrika Nagusia, 7
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 17 04

- **%10 merkeago merkealdietan izan ezik**

### LIBURUAK

NAFAR PRESS

**LIBURUAK • PRENTSA**
**ESKOLA MATERIALAK**

Jaime Urrutia, 43
ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 09 02

- **% 10 merkeago** Liburu eta eskola materialetan

### OPTIKAK

ARGIBEL OPTIKA

Santiago, 62 ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 13 91

- **%10 merkeago lente graduatuetan**

DATUAK..........

❶ *Iñaki Iparragirre, Leitzako atzelaria 1976ko irailaren 23an jaio zen. Joan den astean bete zituen 23 urte.*

❷ *ASPE enpresarekin bi urterako kontratua sinatu ondotik eman du saltoa profesionaletara.*

❸ *Abuztuaren 11n egin zuen debuta. Berraondorekin batera zortzi tantutan utzi zituen Haritz eta Milikua. Geroztik hamahiru partidu jokatu ditu, bederatzi irabaziz: «Kontrarioak portatzen ari dituk».*

❹ *Afizionatutan Espainiako txapelketa, Federazio txapelketa, Erregearen Kopa eta Nafarroako klub arteko txapelketa irabazi du, Osasuna taldearekin.*

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
JOSEBA AZPIROZ

☞ **Iñaki IPARRAGIRRE** *Leitzako pilotaria*

# "Afizionatutan jokatuko partiduek lasaitasuna ematen didate orain"

Hasiera ona eman dio profesionaletako ibilbideari Iñaki Iparragirre leitzarrak, debutatu zuenetik partidu gehienak irabazi baititu. Uda partean, gainera, afizionatutan baino partidu guttiago jokatzen da profesionaletan. *«Erritmo lasaiagoa da partidu kopuruari dagokionez»* dio. Dagoeneko espero zuen leitzarrak profesionaletara igarotzea, azkenaldian ederki baitzebilen afizionatutan. Bi urte hauetan dituen helburuei buruz galdetzerakoan oinak lurrean ditu Iparragirrek: *«Pixkanaka pixkanaka kategoria hartzen joan eta bigarren mailan postu politte hartzea. Nahiko ongi hasi naiz, baina momentu txarra ere suertatu daiteke».* Horretarako lagungarri izanen du afizionatu mailan pilatutako esperientzia. *«22-23 urterekin igarotzen zarenean pilotari esperientziaduna eta egina zara. Haseran urduriago arituko nintzela uste nuen, baina ez da horrela suertatu».* Izan ere, horixe da bere ezaugarri nagusiena, *«segurtasuna eta bi esku nahiko polittek izatea».* Hobetu beharreko arloak ere ikusten dizkio bere buruari, noski. *«Kolpe pixko bat hartu behar dut. Hiru edo laugarren koadrotik egin behar da mina eta nik ez dut frontisa behar bezala aprobetxatzen. Horixe hobetu behar dut, entrenamendu asko eta kantxan orduak sartuz».*




**«Ladix Galarza eta Inaxio Errandonea izan ditut beti gustoko. Orain onenak Elkoro eta Eugi direla uste dut»**

> *“Bi esku nahiko polittek ditut, baina kolpe pixka bat hartu behar dut. Hiru edo laugarren koadrotik egin behar da mina eta nik ez dut hori.”*

### BARRIOLAREN KONTRA JOKATZEKO GOGOZ

Leitzan bertan bada bertze esku pilotari profesionala, Abel Barriola, baina Asegarceren esanetara jokatzen duena. Azken aldian badirudi bi enpresak hobekixiago moldatzen ari direla eta Iparragirrek gustora jokatuko omen luke Abelen kontra. *«Herrikoa izateaz gain, lagun haundia dut, txikitxikitatik ezagutzen gara eta gauza politte izanen zen bere kontra aritzea. Bai niri eta bai berari gustatuko litzaiguke eta herrian ere zerbait berezia izanen zen».* Bi enpresetako pilotariak elkarren kontra aritzen ikustea pilotazaleendako ona izanen delauste du Iñakik. Pilotarientzako suposatuko duenaz, ordea, zalantza gehiago agertzen ditu: *«txapelketetan bakarrik elkartuz gero ona da, baina txarra izanen litzateke bi enpresak monopolio gisara jarri eta enpresa bakarra balitz bezala funtzionatuko balute, lehen Asegarcek egiten zuen bezala: partidu gutxiago jokatzeaz gain, pilotari guziak kontrolatzen zituen. Pilotari asko dago orain eta hori gertatzen bada, pilotari kopurua eta kontratuak murriztuko dira seguraski».*

# Euskal Herriko aizkolari txapelketaren finala igandean jokatuko da Donezteben

- Mindegia eta Jaunarena zubietarrak eta Etxeberria sunbildarra bertan izanen dira
- Hamabina enbor moztu beharko dituzte eta Olasagasti da faborito nagusia

Igande honetan, urriak 10, eguerdiko 12,30etan jokatuko da Doneztebeko eskolako pilotalekuan Euskal Herriko lehen mailako aizkolari txapelketaren final haundia. Bertan Joxe Mari Olasagasti, Jose Miguel Peñagarikano, Floren Nazabal, Mikel Mindegia, Antonio Jaunarena eta Felix Etxeberria lehiatuko dira. Hamabina enbor moztu beharko dituzte, lau kanaerdiko (54 ontza), bertze lau 60 ontzako eta lau oinbiko (72 ontza).

Altsasun irailaren 19an burututako kanporaketan zenbait ustegabeko izan ziren. Honela, Senosiain finaletik kanpo gelditu zen, inork uste ez zuela; Felix Etxeberria sunbildarra, iazko bigarren mailako txapelduna, finalean sartu zen eta, azkenik, iaz finalean aritu zen Barberena azkena izan zen eta bigarren mailan aritu beharko da heldu den urtean.

Altsasun kanaerdiko bi enbor, bi oinbiko eta bi 60 ontzako moztu behar izan zituzten bederatzi aizkolariek, hiru txandatan banatuak. Lehendabiziko txandan Olasagasti izan zen onena, Jaunarena eta Senosiaien aintzinetik. Bigarrenean, Nazabal nagusitu zen, Mindegia eta Etxeberria gibelean utzita. Azken txandan Peñagarikano gailendu zen, Erasun eta Barberenaren aintzinetik.



Doneztebeko eskolako pilotalekuan jokatuko da Euskal Herriko aizkolari txapelketaren finala, igande eguerdian. Artxibokoa

| Enborra | 54' | 60' | 72' | 72' | 60' | 54' |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. OLASAGASTI | 1'05" | 3'33" | 8'09" | 13'23" | 16'09" | 18'00" |
| 2. PEÑAGARIKANO | 1'26" | 3'57" | 7'51" | 13'21" | 16'14" | 18'11" |
| 3. NAZABAL | 1'25" | 4'03" | 8'16" | 13'46" | 16'48" | 18'31" |
| 4. Mikel MINDEGIA | 1'25" | 3'47" | 8'27" | 13'38" | 16'45" | 18'54" |
| 5. JAUNARENA | 1'07" | 3'49" | 9'24" | 14'22" | 17'39" | 20'14" |
| 6. Felix ETXEBERRIA | 1'39" | 4'12" | 10'15" | 14'01" | 18'30" | 20'40" |
| 7. SENOSIAIN | 1'35" | 3'57" | 8'58" | 14'58" | 18'41" | 20'56" |
| 8. ERASUN | 1'17" | 4'46" | 11'02" | 16'42" | 20'07" | 22'58" |
| 9. BARBERENA | 1'32" | 4'27" | 10'36" | 16'57" | 21'11" | 24'15" |

## I. Paxaka txapelketan izen emateko epea urriaren 12an akituko da

Laxoa elkarteak lehen aldiz antolatu duen paxaka txapelketa jokatuko da negu honetan Baztan eta Malerrekako pilotalekuetan.

Joan den urtean ere izan zuten txapelketa hau antolatzeko asmoa, baina azkenean aurten egiteko utzi zuten. Izena emateko epea urriaren 12an akituko da, norbere herrian edo 948 452140 eta 948 450643 teledonoetara deituz.

Paxakaren araudian zenbait aldaketa egin dira: normalean trinketetan jokatzen da eta eskualdeko pilotalekuen tamainara moldatzeko egin dira aldaketa hauek. Honela, paxakakoak baino bizixeagoak diren pilota batzuk egin dira espreski. Talde bakoitzeko hiru pilotarik jokatuko dute eta pilotalekuak beti estaliak izanen direnez, eguraldiak ez du jardunaldiak jokatzea oztopatuko.

Erraten ahal da paxaka tenisaren aitzindaria dela. Metro terdiko sarea jartzen da kantxarèn erdian eta partidu bakoitza hamahiru jokutara jokatzen da ohiko moduan zenbatuz: 15, 30, 40, ados –hala suertatzen bada– eta jokua.

## BOTE pronton

**Gartzaingo VI. Mendi Duatloia**

Pilarika egunean, arratsaldeko 5etan abiatuko da Gartzaingo VI. Mendi Duatloia. Partehartzaileek 5 km lasterka, 15 mendi bizikletan eta azkeneko bi terdiak berriz lasterka egin beharko dituzte. Izen ematea proba hasi baino ordu erdi lehenago bitarte egiten ahal da, 700 pta ordainduz. Berendua emanen zaie kirolariei.

**Unai Barazabal**

Azpilkuetako txirrindularia Nafarroako afizionatuen tropeleko erregularrena dela erakutsi du Embalajes Clavijo Challengea irabaziz. Euskaldun (41 lasterketa) eta Lehendakari txapelketako (24) probetan 25 lehendabiziko sailkatuek jasotzen dituzte puntuak eta Barazabalek 279 pilatu ditu.



Unai Barazabal

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

### GARTZAIN

**Urriaren 9tik 12ra** Xehetasunak Baztango berrietan.

## JAIALDIAK

### ARBIZU

**Nafarroako Trikitilarien Eguna** Nafarroako Trikitilari Eskolak uztartzeko antolatzen den besta. Egitaraua:
11tan: hameketakoa eta Sakanako hainbat herritan barna trikitixa doinuak.
2tan: Bazkaria polikiroldegiko frontoian.
Iluntzean: Dantzaldia plazan Gozategirekin.

## ANTZERKIA

### LEITZA

**Urriaren 9an** ostirala, arratsaldeko 7,30etan Akelarrea izeneko antzezlana eskainiko du Hernaniko Akelarrea taldeak.

### ELIZONDO

**Urriaren 10ean** Lamixine BAT antzerki taldeak bere lehen antzerki obra profesionala aurkeztuko du: "Donejakuerentzako bidea".

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora. deitu behar da

**Urriaren 4tik 10era** Igantzi, Sunbilla, Leitza, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.
**Urriaren 11tik 17ra** Arantza, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.
**Urriaren 18tik 24ra** Lesaka, Narbarte, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

## TELEBISTAKO TXOKOA

# ttipi-ttapa telebista

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | ORTZEGUNA | ORTZIRALA |
|---|---|---|---|---|---|
| 11:00 | Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) Bidegurutzean | Berriak (errep.) |
| 13:00 | Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) Bidegurutzean | Berriak (errep.) |
| 17:00 | Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) Bidegurutzean | Berriak (errep.) |
| 21:00 | Berriak | Berriak | Berriak | Berriak | Herriz-herri |
| 21:30 | Jokoa Solas | | Bidegurutzean | | Herriz-herri |




**Denboraldi berria**

**TTIPI-TTAPA TELEBISTAN**

Eta ez nolanahikoa gainera. Igantziko San Migeletako saio berexien ondotik, gure telebistak aitzinera segituko du udazkeneko programazioarekin. Oraingoan, eguneroko informatiboak berritu ditugun bezala, Jokoa Solas eta Herriz Herri saioek ere aurpegi berria erakutsiko digute. Baina berrikuntzak ez dira hemen akautzen, laster saio berri eta desberdinak ailegatuko baitira zure etxeko telebistara. Uda beroaren ondotik hasi udazkena behar bezala, ttipi-ttapa TBn.

## BASERRIA

### ZERRIKIA

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.300 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 141 pta/kiloa.
- **Zerramak:** 95-100 pta./kiloa, bizirik.

### BEHIKIA

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal

Extra . . . . . . . . . . . . . . .550
1.koa . . . . . . . . . . . . . .520
2.koa . . . . . . . . . . . . . .500

- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal

Extra . . . . . . . . . . . . . . .560
1.koa . . . . . . . . . . . . . .530
2.koa . . . . . . . . . . . . . .510

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak**

(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 12.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
**Mestizoak:** urruxak 28.000 eta idixkoak 40.000 Pta.
**Behi zaharrak:**
Behi nabar gizena: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: **EHNE-NAFARROA**

## Liburuak




«Ez»
Manu ERZILLA
Alberdania

Manu Erzilla bilbotarrak argitara atera duen lehen nobela duzu hau, lehenagotik poesia bildumaren bat egina duen arren. Piriniotan, Aspe haranean, kokatzen da kontakizuna. Protagonistaren gurasoek, Europa berriaren abantailak alde batera utzita, Pirinioko leku urruti horretan bizitzen jartzea erabakitzen dute. Nobela hasten den momentutik, ordea, erabat umezurtz gelditzen da protagonista: umezurtz, aita eta ama hil zaizkiolako; eta umezurtz, inguruneari ustez deusek lotzen ez duelako. Gurasoengandik datorkion patrimonio guzia salgai jarri du, eta Jaun Notarioaren etxean dago erosleen zain, patrimonioa saldu eta Piriniorik gabeko, Aspe-jenderik gabeko etorkizuna erosi nahian. Pertsonaiaren barne psikologiaren baitan sartzen da maixuki Manu Erzilla.

JAKIN BEHARREKOAK

# Espaziuntziak itsasotik aireratuko dira orain

Atzerakako kontaketa, 3, 2, 1,...0, badoa espaziuntzia. Horrelako irudiak dagoeneko arruntak bihurtu dira telebistan, oso maiz gertatzen baitira azken boladan. Hemendik aurrera, berriz, berrikuntza ere irits daiteke espaziuntzien jaurtiketen alorretik, horretarako geroeta gehiago itsasoa erabiliko baita. Zuzenago esanda, irudian ageri denaren gisako itsas-plataformak erabiliko dira.



Sea Launch espaziuntzia aireratu zenekoa.

**SEA LAUNCH PROIEKTUA AURREKARI BEZALA**

*Sea Launch* proiektuak aurten izan du estreinaldia (martxoan, hain zuzen, Zenit espaziuntziaren jaurtiketarekin), baina etorkizunari begira, badirudi ontziak espaziora bidaltzeko modurik erabiliena izango dela. Izan ere, itsasoak eskaintzen dituen abantailak ugariak dira. Itsas-plataforma mugikorra izan daitekeenez, iparrarekiko 0°-tan koka daiteke, Lurreko Ekuatorean. Kokapen hori satelite geoestazionarioak jaurtitzeko egokiena da, erregaia aurrezteaz gain, sateliteen bizitza luzatzen baita. Sea Launch proiektuak argia ikusi zuen arte, Ekuatoretik gertuen zegoen jaurtiketetarako gunea Kourukoa zen, iparrarekiko 5°-tara. Dena den, eragozpenak era baditu itsas-plataformetatik jaurtitzeak, batetik muntatzea arras garesti baita, eta bestetik itsasoaren egoera ezin delakoz aurrikusi.

*Itsas-plataforma mugikorra izan daitekeenez, iparrarekiko 0ºtan koka daiteke, Lurreko Ekuatorean. Kokapen hori da satelite geoestazionarioak jaurtitzeko egokiena.*

ELHUYAR TALDEA

## DISKAK



«Ikasten»

BERRI TXARRAK

GOR

Hauxe da Berrri Txarrak talde nafarraren bigarren diskoa, "Berri Txarrak" izenarekin argitaratu zuten lehendabizikoa. Metal kutsuko kitarra astunek eramaten dute abestien pisu instrumentala, eta melodia itsekikorrak errepikatzen dira oraingo honetan ere. Metalaren barrenean pop, hip-hop, hardcore eta punk nahasketa egiten saiatu dira KDak dituen 11 kantuetan.

Talde honen hitzetan salaketa da nagusi: komunikabideak, drogak, langabezia eta indar polizialak dituzte hizpide, bertzeak bertze. Dena den, bakardadeari buruzko kantu bat eta "Ikusi arte" maitasun kontua ere sartu dituzte tartean. Aipagarria da Sarrionaindiaren "Aspaldian utzitako zelda" bertsionatu dutela, "Gartzelako poemak" liburuan argitaratutakoa.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### KANTALDIAK

**BERA**

- **Urriaren 9an** Zarauzko Abesbatza. Arratseko 8,30etan Altzateko Elizan.
- **Urriaren 9an** Mikel Laboa eta Petti. Arratseko 10,30etan Kultur Etxean.

### SOLASALDIAK

**BERA**

- **Urriaren 15ean** "Aprender a decir no a los hijos". Mercedes Lezaun. Iamotenean, arratsaldeko 6,30etan.

### USATEGIETAKO IGANDEA

**ETXALAR**

- **Urriaren 17an** Xehetasunak Etxalarko berrietan.

### IKASTAROAK

**ELIZONDO**

- **Urritik maiatzera** Haurrendako margoketa ikastaroa eta helduendako ehoziri ikastaroa.

### NAFARROA OINEZ

**IRUÑEA**

- **Urriaren 17an** Iruñean Jaso ikastolaren alde.

### KIROLAK

**LESAKA**

- **Urriaren 18an** akautuko da Batzoki elkarteak antolatutako 1. mailako III. Paleta Goma Txapelketan izena emateko epea. Izen ematea: 948 627 522 edo 948 627 518.

# MERKATU TTIKIA

**Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.**

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

[redacted]
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

*Hegoaldetik deitzeko*
*Iparraldetik 00-34-*
**948631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapak** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**ADOS**
**IRURITA.**
**- Lur eremu eraikigarria salgai.**
✆ 948 451 841

**GOIKO SL**
**LEITZA. 6 pisu dauzkat salgai. Informazio pertsonala emanen da.**
✆ 649 476 615 • 948 510 346

**BEINTZA-LABAIEN.** Baserria salgai. Ura eta argia baditu. ☎ 948 450 039.

**LEITZA.** Pisu bat salgai, prezio onean. ☎ 948 510 484.

**BERA.** Pio Baroja karrikan pisua salgai, bere bajerarekin. ☎ 948 635 137.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**ADOS**
**- Eskaera haundia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.**
✆ 948 451 841

**Baserria edo borda** argia eta urarekin erosiko genuke Bortziriak, Malerreka edo Baztanen. ☎ 948 451698.

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

**IRUÑEA.** Pisua osatzeko neska bat behar dugu. ☎ 948 450 802 (Blanka).

**DONOSTIA.** Pisua osatzeko neska bat behar dugu Antigua auzoan. Bakarkako logela. ☎ 948 637 228 (Maider).

**IRUÑEA.** Pisua osatzeko hiru neska behar ditugu, Carlos III.a karrikan. Merkea. ☎ 948 450 578 (Ana, 14etatik 16etara)

**BERA.** 23 urteko gazte batek pisua konpartituko luke 3 hilabetez Beran. Lankontuengatik. ☎ 948 631 489 edo 689 801 634.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**LESAKA:** Lur-azpiko bajera errentan emanen nuke Bittiria karrikan. ☎ 948 637 948.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

**ARANTZA ZURGINDEGIA**
*Jose Miguel Errandonea*
*Klase guztietako zurgin lanak*
Osiña auzoa ✆ **948-634068** • ARANTZA

## LANA

### 301 ESKARIAK

**Gaztebatek** lan eginen luke edozein ordutegirekin. Autonomo alta emana, furgoneta eta telefono mugikorra baditut. ☎ 609 477 277.

30 urteko **neska** eskaintzen da goizetan lan egiteko. ☎ 948 637 562 (Lurdes, gauetan).

**Kitarra** elektrikoa eta **armonia** (modernoa) klaseak ematen ditut. ☎ 948 630 317 (Joseba).

**Kitarra** (elektrikoa, akustikoa eta klasikoa) eta baxu klaseak ematen ditut. ☎ 948 630 550 (Fermin).

**Emakume batek** edozein lan eginen luke egunean 2 edo 3 orduz. ☎ 948 630 238.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**KULTURKARI**
**Lan eskaintza**

ZUZENDARI KOMERTZIALA BEHAR DA

**Baloratuko da:**
- Eskualdea ezagutzea.
- Salmentan esperientzia.
- Antolaketa kapazidadea.
- Marketing eta enpresa administrazioan ezagutza.
- Autoa izatea.

Bidali Curriculumak lehenbailehen helbide honetara:

**KULTURKARI**
**Herriko Etxeko Plaza, 1**
**31780 BERA**

**Neska edo emakume bat** behar da Iturenen, Etxandi-Txoko jatetxean lan egiteko. ☎ 948 450491.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

**Citroen ZX** 1.9 Diesela saltzeko. NA-AF. Ongi dago. ☎ 948 631 460 (arratseko 8etatik 10etara).

**Citroen ZX** xuria salgai. NA-AC, egoera onean. ☎ 649 285 878 (eguerditan).

**Opel Sintra** salgai, NA-AT. 32.000 km. ☎ 948 631 065.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

**BOAN TAILERRA**
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • **BERA**

**MENDAUR MOTOR**
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Terrano II, Peugeot 306 TD, Corsa GSI, Land Rover motza.
Suzukiak: Vitara eta Samurai aukeran.

NISSAN
**BERABI tailerrak**
✆ 948 631 445•BERA
Nissan Vanette C-5, Peugeot 405 TD, Mitsubishi 2.5 TD merkea.
BERRIETAN OFERTAK

## ANIMALIAK

### 601 OPARI EMATEKO

**Txakurkumeak** opari emateko. ☎ 948 631 448.

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

Limosin arrazako **bi zezengai** salgai, oso kalitate onekoak. ☎ 689 801 633.

Basurde eta erbi ehiziko **zakurkumeak** salgai. ☎ 948 631390.

## ANIMALIAK

### 603 KLINIKAK


**ALBAITERITZA KLINIKA**
Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
✆ 948631362 • Legia 13 • **BERA**
Txepetxa


## DENETARIK

### 701 GALDU/AURKITUAK

Berako Toki Onako parkean **lepokoa** harrautu dugu (domina eta katea) irailaren 24an. ☎ 948 630688.

Berako Polikiroldegiko patioan **giltza bat** aurkitu da. Toki Ona Institutuan dago.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

300 litroko **esne tankea** salgai. ☎ 948 637 910.

**Tolarea** salgai sagardoa egiteko. ☎ 943 635 731 (gauez) edo 670 402 577.

**Sukalde** ekonomiko-kalefaktorea (doratuekin) salgai. ☎ 948 610 783 (eguerdi eta arratsetan).

**Marshall** JCM 900 anplifikadorea salgai. Egoera onean. ☎ 948 630 955.

Diego Pons Luthier-ek egindako **kitarra** salgai. Distorsio pedalak ere bai ☎ 948 630 317 (Joseba).

Nissan kotxearendako **4 aluminiozko llanta** salgai, 14 hazbetekoak. Prezio onean. ☎ 948 637 346.


**KULTURKARI**

**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

✆ **948 63 11 88**


## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

Zorionak **Berako** Nagoreri bere 18. urtebetetzean. Erratzuko kinkien partetik.

**Zigako** Maite Barberenak irailaren 26an bete ditu urteak. Zorionak bere kuadrilaren partetik.

## LEITZAko UDALA

**GELTOKIKO AUZOKO SANEAMENDUAREN ERAIKUNTZAREN ADJUDIKAZIORAKO LIZITAZIO-DEIA**

Leitzako Udalbatzak 1999ko irailaren 24ean egindako bilkuran, hurrengo lizitazio deia egitea onartu zuen:
**Kontratuaren objetua:** Geltokiko Auzoko saneamenduaren eraikuntza.
**Esleitzeko bidea:** jarduera administratiboa prentsan egindako publizitatearekin.
**Kontratazio-espediente mota:** arrunta.
**Kontrataren aurrekontua:** 9.685.701 pezeta, BEZ barne.
**Lanak egiteko epea:** bi hilabete.
**Proposamenak aurkeztea:** Eskaintzak Leitzako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira 1999ko urriaren 15aren eguerdiko hamabiak baino lehen.
**Aurkeztu beharreko agiriak:** Baldintza ekonomiko-administratiboen pleguan agertzen direnak. Baldintza ekonomiko administratiboen plegua eta obraren memoria Leitzako Udaletxearen Idazkaritzan daude lizitatzaileen eskura, azter ditzaten. Lizitazio-espediente honen iragarkiek sortutako gastuak adjudikatarioaren kargu izanen dira.

*Leitzan, 1999ko irailaren 27an.*
*ALKATEAK, Tomas Azpiroz Alkoz*

## ☞ URTEBETETZEAK

*Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.*

**OHARRA:**
**Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.**



**Julen Zelaieta** beratarrak urriaren 8an 19 urte beteko ditu. Zorionak bere familia guziaren partetik.



Zorionak zuen lehen urtemugan. Eutsi horreri!



**Jokin Mariezkurrena Jauregi** ezkurrarrak irailaren 28an 7 urte bete ditu. Zorionak eta muxu hundi bat aita eta amaren partetik.



**Jose Mari Teiletxea** arraioztarrak urteak beteko ditu urriaren 16an. Zorionak aitatxo. Muxu bat Lourdes, Maria eta Josebaren partetik.

Norbait zoriondu nahi baduzu bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilo TTIPI-TTAPAko helbidera.





**Bidali** TTIPI-TTAPA **herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

✆ **(+34) 948 631188**

**Bera.**
- Etxe bat berritzeko.
- Etxea 14.000 $m^2$ko lur-eremuarekin.
- Bi pisu salgai.
- Pisua(igogailuarekin) **erosi** nahi da.
- 80 $m^2$ko bajera salgai Eztegaran.

**Lesaka.**
- Etxe elkar-atxikiak, orain egitekoak.
- Nabe-pabiloia, 400 $m^2$koa, salgai edo errentan.

**Etxalar.**
- Etxe elkar-atxikiak. Azkeneko biak.
- Harrizko etxea salgai, terrenoarekin.
- Baserri bat, moldatua, terrenoarekin.

**Arantza.**
- Pisu mobleztatua salgai, arras polita, aukera.
- Pisua salgai, garaje, soto eta ganbararekin.

**Igantzi.**
- Etxea salgai, lur-eremu zabalarekin.

**Sunbilla.**
- 57 $m^2$ko bajera salgai.
- Baserria salgai, bere lur-eremuarekin.
- Lur-eremu eraikigarria salgai, herrian bertan.
- Pisu mobleztatua errentan emateko.

**Doneztebe.**
- Pisua salgai herrian, bizitzen jartzeko prest.
- 3.000 $m^2$ko bi lur-eremu polit, eraikigarriak.
- Bajera batzuk salgai herrian bertan.
- Zine ondoan eraikitzen ari den azken pisua.
- Osasun Etxearen ondoan azken apartamentua.
- Udaletxe ondoan, azken bi pisuak.
- Aparango 200 $m^2$ko nabe-pabiloia errentan.
- 26.000 $m^2$ko nekazal lur zelaiak salgai.
- Pisua errentan emateko.


**A D O S**

*Julian Izura Nuin*

Telefonoak: 948 451 841 • 607.978 656

e-mail: julizu@zaros.com

Parrokia 9, bajeran • DONEZTEBE


**Elgorriaga.**
- Pisua bere ganbararekin, berogailuarekin.
- Pisua bajera haundi batekin.
- Lur-eremu eraikigarria.
- Borda salgai, lur-eremuarekin. Ongi kokatua.

**Ituren.**
- Azken bi pisu berriak salgai.
- Lur-eremua salgai, etxea egiteko.
- Etxe bat lur-eremuarekin.

**Zubieta.**
- Etxe haundi bat salgai.

## LESAKA:
- 24 etxe elkar-atxikiak, orain egitekoak.



**Eratsun.**
- Etxe bat salgai.

**Lekunberri.**
- Pisu batzuk, lur-eremu bat eta etxe batzuk.

**Donamaria.**
- Lur-zati eraikigarriak salgai.

**Igurin.**
- Lur-eremu parea salgai.

**Urrotz.**
- Baserri berritua lur-eremuarekin.

**Beintza.**
- Lur-eremuak. Herritik hurbil.

**Labaien.**
- Lur-eremu eraikigarria, ongi kokatua.
- Pisua salgai.

**Legasa.**
- Bi lur-eremu. Eraikigarriak.
- Pisu parea salgai, merke-merke.
- Lur-eremua erosi nahi dugu, baratzea jartzeko.

**Mugairi.**
- Oskorri liburudenda salgai.
- Pisua salgai.
- Lur-eremu eraikigarria.
- Segiduan egitekoak diren pisuak salgai.

**Irurita.**
- Lur-eremua salgai, etxe bat egiteko.
- 7.000 $m^2$ko belagia salgai.

**Elizondo.**
- Pisu hagitz polita salgai.
- Pisu batzuk errentan emateko.

**Erratzu.**
- Etxe bat bizitzen jartzeko prest.


Diseinu eta publizitatean, zerbitzu integrala

**KULTURKARI**

publizitatea zerbitzuak

Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa.: (+ 34) 948 63 11 88 / Fax: (+ 34) 948 63 12 91

Irudi korporatiboa — Publizitatea prentsan

logotipoak — irratian

foiletoak — telebistan

aldizkariak — Publizitate

katalogoak — kanpainen

diseinua — antolaketa




# HEMENTXE GAUDE !!

LARUNBATA,
URRIAK 9
LEHEN EGUNA

JOSELU ANAYAK

DISKOTEKA
16 LARUNBATA

23 LARUNBATA
EKLIPSE

DISKOTEKA
30 LARUNBATA

ETZAKIT

31 IGANDEA



# BORDATXO

LARUNBAT
GAUEK
MARTXA